DBH

# GIZARTE ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA

## SARRERA

Hezkuntzaren funtzio sozializatzailea, hein handi batean, honako hauetan datza: batetik, ikasleei beren gizartearen berri ematean, bai iragan historikoaren eta gaur egungo antolakuntza eta funtzionamenduari dagokiona, bai bizi diren lurraldeari dagokiona, baita hango arazoei dagokiena ere; eta, bestetik, herritar gisa beren betebeharrei aurre egiten eta dituzten eskubideez balia ditzaten prestakuntza ematean, partaidetza, tolerantzia eta elkartasunezko jarrerak bultzatuta.

Horrenbestez, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgaiaren irakaskuntzaren helburua zera da: ikasleek beren munduaren errealitatea hobeto ezagutzeko beharrezkoak diren ezaguerak, trebetasunak eta jarrerak ikastea, alderdi fisikoak, sozialak zein kulturalak barne hartzen direla, baita iraganeko eta egungo esperientzia kolektiboak ere, eta gizartean dagoen bizimoduaren espazioa ere kontuan hartuta; eta, horrezaz gain, Euskal Herriko, Espainiako eta Europako nortasun historikoa eta kulturala osatzen duten berariazko ezaugarrien berri ematea. Hala, irakasgai honek elementu esanguratsuak ematen ditu inguruneko alderdi fisikoak ondo ezagutzen dituzten herritarrak trebatzeko; herritar horiek arduratsuak eta solidarioak izan beharko dute eta gaur egungo gizarteetako aniztasun soziala eta kulturala aintzat hartu beharko dituzten, bereziki egungo euskal gizartekoa; bestalde, naturarekiko, beren buruarekiko eta besteekiko harreman berrien bila dabiltzan herritarrak prestatzeko elementuak ere ematen ditu.

Beste alde batetik, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgairako curriculum-proposamen honek lagungarri izan nahi du ikaskuntzaren arloetako oinarrizko gaitasunak modu eraginkorrez gara daitezen. Zehatzago esanda, helburua ikasleei beren burua hobeto ulertzen laguntzea da, pertsona bakarrak balira bezala, baina gizartean beste batzuekin batera bizi dira, eta haiekin taldetan antolatu behar dute, helburu edo maila guztietan (familia, eskola, bizilagunak, udalerria, nazioa, etab.). Talde horiek hobeto ezagutzen laguntzea da helburua, eta, halaber, talde horietan modu aktiboan parte hartzen laguntzea. Talde horiek interaktiboak dira; denboraren poderioz berrantolatu dira eta hainbat jatorritako bizikidetza-gatazkak eta tentsioak izan dituzte eta izaten ari dira. Nahitaezkoa da gatazka horiei bake- eta demokrazia-prozesuen bidez aurre egitea.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgaiak ezaguera, trebetasun eta jarrera horietan sakontzea du helburu, aurreko etapan ikasleek ikasitakoa abiapuntu hartuta. Izan ere, Lehen Hezkuntzan, natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen arloko ezaguerak barneratzeko, modu globalean eta

ikasleen esperientzien bidez hurbiltzen ziren errealitatera, alderdi indibidual, subjektiboak eta norberaren bizipenak azpimarratzen zirela. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, gizartearen ezagueran sakondu egiten da, gizartearen errealitaterako hurbilketa analitikoagoa proposatzen baitu: kontzeptuak dibertsifikatu egiten dira; ezaguera zientifikoekin zerikusia duten prozedurak konplexuagoak dira; espazio-denborak hainbat eskalatan aztertzen dira eta jarrerak eta balioak sendotzen hasten dira.

Horri esker, irakasgai honen diziplina-ikuspegia sendotu egiten da, eta Geografia eta Historia hartzen dira oinarrizko erreferentziatzat. Bi diziplina horiek gizarte-arloaren ardatzak dira, gizakiaren eta gizartearen errealitatea ikuspegi global eta integratzailea kontuan hartuta hartzen baitute aintzat; eta, gainera, gertaera sozialak egituratzeko ahalmen handiagoa ematen dute eta beste diziplina batzuetako elementu komunak eta jakintzak ematen dituzte, berez diziplina anitzekoak baitira. Historiak ezaguerak eta metodoak eman behar dizkie ikasleei, gizarteen bilakaera denboraren joanean nolakoa izan den uler dezaten; eta Geografiak, berriz, espazioaren dimentsioa hartu behar du kontuan. Dena dela, egungo gizakiaren eta gizartearen errealitatea ulertzeko, nahitaezkoa da Gizarte Zientziaren arloa osatzen duten diziplinak ere kontuan hartzea, eta horiek errealitate hori aztertzeko hainbat ikuspegi ematen dituzte. Esate baterako, Ekonomia, Soziologia, Artearen Historia eta Ekologia irakasgaiak dira, eta errealitate hori ulertzeko osagarriak dira.

Hortaz, batetik, irakasgaiak gizarteen espazio-dimentsioari eta lurralde-osaerari buruzko oinarrizko ideiak ematen ditu, tokikoak zein mundukoak; horrezaz gain, gizarteek beren ingurune fisikoarekin duten elkarrekintza-printzipioen berri ematen die ikasleei, eta, horri esker, emakumezkoek eta gizonezkoek espazioan nola jokatzen duten eta ingurunearen potentzialtasunak eta mugak balioesteko gai izango dira. Lagungarria da, halaber, ikasleek honako hauen berri sakonago izan dezaten: gizarteen espazio-antolakuntza, haien demografia-, ekonomia- edo giza dimentsioak, gizakiaren esku hartzeko moduak eta horiek eragin ditzaketen inpaktuak.

Bestalde, gizarte-gertaerak eta fenomenoak beren testuinguruan ulertzeak eta gizartean izandako aldaketa historikoen prozesuak aztertzeak zentzua dute gaur egungo gizartearen ezaugarri eta arazo nagusiak balioesteko, ulertzeko eta epaitzeko. Ikuspegi hori kontuan hartuta, komenigarria da ikasleei behar adinako ezaguera globala ematea, denboraren joanean gizakiak egungo errealitatea nola eratu duen interpretatzeko, eta denbora historikoa ulertzeko esparru orokorra izan dezaten.

Irakasgai honek ekarpen garrantzitsuak egin diezazkioke hezkuntza-gaitasunetako zenbait arlori; batik bat, esate baterako, honako gaitasun hauekin zerikusia dutenei: gizarte- eta giza gaitasuna, kultura zientifiko eta teknologikoaren eta osasunaren kulturaren gaitasuna, hizkuntza-gaitasuna, informazioa tratatzeko gaitasuna eta gaitasun digitala, kulturaren eta artearen gaitasuna

eta ikasten ikasteko gaitasuna. Ahaztu gabe matematika-gaitasuna eta norbanakoaren autonomia eta ekimenarekin zerikusia duen gaitasuna.

Edukiak eta ebaluazio-irizpideak mailaka antolatzen dira eta irizpide guztiek balioespenerako zenbait adierazle dituzte. Argiago azaltze aldera, edukiak multzoka antolatzen dira, eta haien alderdi zehatzak, berriz, epigrafetan.

Eduki komunak izeneko hasierako multzoan geografiako eta historiako oinarrizko alderdien irakaskuntza erantsi da maila guztietan; prozedurak orokorrak dira, edo, hala dagokionean, jarrerei buruzkoak. Curriculumean hasierako multzoa eranstearen helburua zera da: eduki horiek azpimarratzea, eta gainerako guztiak esparru horren barruan garatu beharrekotzat hartzen dira. Bestalde, denboraren joanean gizarteak nolakoak izan diren ikasteko, kronologia-irizpidea hartu da kontuan etapa guztian.

Lehen mailan, inguruneen edo naturaren esparruak lantzen dira, elementuen arteko elkarrekintzaren ingurukoak zein lurraldea egituratzean giza taldeekin izandako harremanen ingurukoak; halaber, munduaren eremuari espazio-erreferentzia egiten zaio, eta, bereziki azpimarratu dira euskal, espainiar eta europar eremuak. Biodibertsitatea zaintzen laguntzeko, biodibertsitateari buruzko balioespena eta harekiko kontzientzia izatea eduki horiekin guztiekin zerikusia duten jarrerak dira, eta 2. multzoan lantzen dira, Lurra eta ingurune naturalak.

Maila horretan, gizarte historikoen bilakaera lantzen da, hastapenetatik Erdi Aroa arte. Esparru horren barruan, gizarteen bilakaera ahalik eta nabarmenen erakusten duten alderdiak azpimarratzen dira, baita, denboraren ikuspegia abiapuntu hartuta, egungo gizarteak nola eratzen diren ikusarazten duten alderdi esanguratsuenak ere. Mundua eremutzat hartuta, eta, bereziki, Europa, gure herrialdeko Historiaren ezaugarriak erantsi dira. 3. blokeak honako eduki hauek biltzen ditu: historiaurreko gizarteak, lehendabiziko zibilizazioak eta Antzinaroa.

Bigarren mailan, honako hauek lantzen dira: biztanleria, demografiaren gorabeherak eta joerak eta horien ondorioak; gaur egungo gizarteen ezaugarriak, bereziki euskal, espainiar eta europar gizarteetakoak, eta horien egituren eta aniztasunaren berri ematen da; horrezaz gain, hirietako bizimoduak eta hiri-espazioen ezaugarriak ere lantzen dira (2. multzoa: Biztanleria eta gizartea). Horrekin batera, bilakaera historikoa aztertzen jarraitzen da, Erdi Aroko gizarteekin hasi eta Estatu modernoa eratu arte. 3. eduki-multzoan, industriaurreko gizarteak izenekoan, garrantzi handia ematen zaie garai hartako Iberiar Penintsulari, Erdi Aroko penintsulako lurraldearen aniztasunari, Monarkia Hispaniarrari eta Amerikako kolonizazioari, baita historia-epe horietako Euskal Herriaren egoerari ere.

Hirugarren eta laugarren mailan, espezializazioa handiagoa da, eta egungo munduaren azterketa da elementu komuna; hainbat ikuspegi osagarritatik lantzen da.

Horrenbestez, hirugarren mailan, ekonomia-jarduerak eta horiek eragiten dituzten espazioak eta paisaiak abiapuntu hartuta, antolaketa politikoa eta eremu geopolitiko eta ekonomiko handien geografia-espazioa aztertzen da, baita gaur egungo mundu interdependente honen aldaketak eta arazoak ere; giza garapenean dauden desberdintasunak azpimarratzen dira bereziki. 2., 3., 4. eta 5. multzoek biltzen dituzte eduki horiek. Hau da, Ekonomia-jarduera eta geografia-espazioa; Ekonomia-jarduerak Euskal Herrian eta horien eragina ingurumenean; Antolaketa politikoa eta geografia-espazioa; eta gaur egungo munduaren aldaketak eta desorekak, hurrenez hurren.

Laugarren mailan, egungo gizarteen bilakaera eta ezaugarriak lantzen dira. Gaur egungo gizartearen oinarri historikoen azterketak honako hauek biltzen ditu: XVIII. mendeaz geroztik XX. mendearen erdia arte izandako aldaketa ekonomikoak, politikoak eta sozialak, gaur egungo munduaren egitura politikoa eta ekonomikoa, integrazio-prozesuak, aldaketa sozialak, artearen joera berriak, botere-zentroak eta tentsioguneak. Esparru horretan, bereziki azpimarratzen da Espainian Estatu demokratikoa nola eratu zen, Euskal Herrian nola gauzatu zen eta Europako Batasunean duen partaidetza. Eduki horiek 2. multzoari —Egungo gizartearen oinarri historikoak—, 3. multzoari — Mundua gaur egun— eta 4. multzoari —Arte-hizkuntzak— dagozkie.

Irakasgai honen helburuak eta edukiak hautatzean, etapa honetako Hiritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza eta portaera etiko eta hiritarrerako hezkuntza irakasgaiak hartu dira kontuan, gizartearekin zerikusia duena osatzen baitute. Lotura duten alderdiak aukeratzerakoan, kontuan hartu da irakasgaiarekin lotutako ikuspegi espezifikoa izatea edota ikuspegi osagarria izatea. Bestalde, irakasgaia lantzeko, etapa honen izaera bikoitza ere kontuan hartu da: azkena eta propedeutikoa.

Ikasleen adimenaren garapena dela-eta —pentsaera konkretutik formalera— bigarren hezkuntzan irakasgai hau irakastea eta ikastea errazagoa bada ere, diziplina konplexuak dira eta ikasleek zailtasunak izaten dituzte espazioaren eta denboraren nozioak ulertzeko, giza eta gizarte-gertaerak azaltzean sortzen diren arrazoi askotarikoak eta intentziozkoak ulertzeko edo hainbeste informazio jasotzeko. Horregatik, beraz, nahitaezkoa da maila guztietan lan jarraitua egitea, etapa guztian pixkanaka-pixkanaka nozio horiek guztiak barneratzeko. Irakasgaia ikasgelan lantzerakoan, halaber, ikasle-aniztasunera egokitu behar da, curriculum-materialak erabilita, indartzeko edo osatzeko lanak eginda, beste bitarteko batzuk erabilita (idatziak, ikus-entzunezkoak, grafikoak...), ikasleen motibazioa kontuan hartuta, azalpen- eta ikerketa-estrategiak txandakatuta, pedagogia-teknikak erabilita (esaterako, taldekako lanak).

Informazioa modu egokian erabiltzearekin zerikusia duten teknikak eman behar zaizkie ezagutzera, behaketaren edo dokumentazioaren bitartez; informazioa nola erabili, antolatu, grafikoki nola eman edo nola hedatu; halaber, diziplina bakoitzaren berezko prozedurak eta teknikak barneratzeko lagungarriak diren lanak egin behar dira. Izan ere, horrekin guztiarekin lortu behar da ikasleek jasotzen dituzten ezaguerak itxiak izan ez daitezen, eta irakasgai hau abiapuntu dela gaitasuna izan dezaten etorkizunean pixkanaka eta modu autonomoan beren kabuz ikasteko.

Ez dugu ahaztu behar, halaber, gertuen duten beren errealitatea ere ezagutu behar dutela ikasleek, eta errealitate hori oinarri izango dutela urrutiago dauden errealitatea ulertzeko, urrutiko errealitate horren partaide aktibo eta kide ere baitira. Alde horretatik, Europan, aldaketa garrantzitsuak gertatzen ari dira; bateratze-prozesua garrantzi handiko proiektua da, eta etorkizun zabala du, eta, hein handi batean, gaur egun ikasgeletan ditugun ikasleen belaunaldiak zeresan ikaragarria izango du proiektu horretan. Horrenbestez, berebiziko garrantzia du ikasleak bateratze-prozesuaren ezaugarrien jakitun izatea: jatorria, oinarri ideologikoak, erakundeak, funtzionamendua etab., baita pixkanaka eratzen ari den antolaketa politikoaren eta sozialaren abantailak eta desabantailak zein izan daitezkeen ere.

OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO IRAKASGAI HONEK EGINDAKO EKARPENA

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgaiak, bete izaera integratzaileari esker, oinarrizko gaitasunez jabetzen laguntzen du.

Gizarte- eta hiritar-gaitasunak zerikusi zuzena du irakasgai honekin. Esan daiteke curriculumak oso-osorik laguntzen duela gaitasun horretaz jabetzen; izan ere, errealitate sozial, egungo eta historikoa ulertzea da ikaskuntzaren helburua. Baina ikasleek hori benetan lortuko dute, baldin eta gizarteen bilakaerari eta antolaketari, eta haien lorpenei eta arazoei buruz ikasitakoak gizartean egoki moldatzeko balio badie. Jakina, egungo gizarteen ezaugarriak ulertzen, aniztasuna ulertzen eta gure gizartearen elementu eta interes komunak ulertzen laguntzen dute, eta, ondorioz, elkarbizitza errazten duten sentimendu komunak sortzen ere laguntzen dute.

Horrenbestez, honako hau da irakasgai honetan egin beharreko eginkizun garrantzitsua: ikasleei euskal gizarte askotarikoan integratzen laguntzea; integratze-prozesua kritikoa eta eraikitzailea izango da, iragan luze eta konplexua kontuan hartuta aurreko bezain konplexua den orainaldian gauzatu baita. Gizartean, mendebaldeko beste edozein gizartetan bezala, badaude tentsioak eta arazoak, baina, horiezaz gain, biztanleen artean, badaude nortasun- eta kidetasun-sentimendu desberdinak. Errealitate hori ohikoa da egungo Europan, garai bateko Estatu-nazioek eragindako

administrazio-banaketa ez baitator beti bat biztanleen berezko hizkuntza, kultura edo nortasun kolektiboen mugekin. Testuinguru horretan, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgaiak lagungarri izan behar du arazoei modu baketsuan eta demokratikoki aurre egingo dieten hiritarrak prestatzeko, betiere nork bere nortasunari eusten diola eta gainerakoena errespetatzen duela.

Trebetasun sozialak barneratzen ere laguntzen du irakasgaiak. Alde batetik, iraganeko edo gaur egungo giza jarduerak ulertzeko, ikasleek gai izan behar dute jarduera horiek gertaera-garaia kontuan hartuta ikusteko, eta, hala, gainera, beste baten lekuan, lepoan, jartzeko gaitasuna izango dute, enpatia, alegia. Bestalde, trebetasun sozialak izango dituzte baldin eta arazoei aurre egiteko elkarrizketa eta balioespena nahitaezko bideak direla ulertzen badute, edo beren iritziekin bat ez datozen bestelako iritziak dituzten pertsonak errespetatzen badituzte; gainera, elkarlana edo eztabaidak egitea proposatuta, balio horiek aplikatzea aurreikusten da, lan-mota horietan nork bere ideiak adieraz baititzake eta besteenak entzun eta errespetatzen baitira. Hainbat errealitate sozial, gaur egungoak edo historikoak, ezagutzeak edo beste kulturek egindako ekarpenei balioa emateak trebetasun sozialak garatzen laguntzen du, nahiz eta zeharka lagundu. Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgaia hori guztia posible izan dadin beharrezkoak diren jarrerak sortzeko ere baliagarria da. Berezkoa du zientzia bereziaren izaera, ez da gai ziurtasun erabatekoak sortzeko, baina, era berean, interpretazio hobeak eta zehatzagoak bilatzea eskatzen du; horrek, halaber, funtsezko bi jarrera lantzen laguntzen du bizikidetzarako eta arazoei aurre egiteko: erlatibismoa kontuan hartzea eta ñabardurak zehaztea eta horiek lantzea.

Gizarte Zientziek ekarpen garrantzitsuak ere egin ditzakete, besteekiko harremanak kontuan hartuta pertsona bakoitzak bere burua bakar eta errepikaezin eraiki dezan. Gizabanako bakoitzak besteekin izandako harremanen bidez eratzen ditu bere nortasuna, izaera eta portaera; batetik, hainbat talderen partaide da, eta horien eraginak eta horien kultura-erreferentzia espezifikoak ditu abiapuntu; eta, bestetik, kulturen artean gero eta ugariagoak diren elkarreraginak ere ditu abiapuntu, bai lurralde bakoitzean izaten direnak —gero eta ugariagoak eta konplexuagoak—, bai gero eta globalagoa eta interaktiboagoa den gizarte batetik eratorritako fluxu askotarikoek osatzen dituztenak; gizarte horretan, funtzio garrantzitsua dute komunikabideek.

Kultura zientifiko, teknologikoaren eta osasunaren kulturaren gaitasuna barneratzeko ere ekarpena garrantzitsua da. Gaitasun horrek, besteak beste, honako alderdi hauek biltzen ditu: giza jardueraren espazio fisikoaren pertzepzioa eta ezagutza, eremu handiena zein hurbileko eremuarena, baita bi eremu-moten artean sortzen diren elkarrekintzak ere. Giza jardueraren espazioaren pertzepzio zuzena zein zeharkakoa da Geografiaren zereginaren ardatz nagusietako bat: gertaera sozialen eta ikaslearen bizitzaren beraren espazioa ulertaraztea; hau da, espazioaren dimentsioa ulertaraztea. Gaitasun hori landuko da, eduki geografikoak ikasteak dimentsio

horretan eragina duela bermatzen bada; horretarako, berebiziko garrantzia dute espazioak eta paisaiak —benetakoak zein irudien bidez adierazitakoak— orientatzeko, kokatzeko, erreparatzeko eta interpretatzeko prozesuek.

Gizakia-ingurunea elkarrekintza eta horrek eragiten duen lurralde-antolakuntzaren berri izatea ere ekarpen garrantzitsua da. Irakasgaiak berak aukera ugari ematen ditu gizakiak espazioa eta haren baliabideak nola erabiltzen dituen aztertzeko; eragiten dituen kalteak aztertzeko bakarrik ez, baita bi horiek (espazioa eta baliabideak) modu arduratsuan erabilita ingurumena babestea eta zaintzea ziurtatzen dituzten ekintzak aztertzeko ere.

Kultura humanistiko eta artistikoaren gaitasunari ere ekarpenak egiten dizkio; zerikusia du, batez ere, arte-adierazpenak ezagutaraztearekin eta haiek balioestearekin. Ekarpen hori gauzatzeko, batetik, arte-lan garrantzitsuak aukeratu behar dira —estiloen edo artisten ezaugarriengatik esanguratsuak direlako, edo kultura-ondarea osatzen dutelako—, eta, bestetik, funtsezko osagai teknikoei erreparatzeko eta horiek ulertzeko baliabideak eman behar zaizkie ikasleei, gero arte-lanak aztertu ahal izan ditzaten. Planteamendu hori oinarri hartuta, arte-lanei merezi duten balioa ematen irakasten da; pertzepziorako eta sentsibilizaziorako trebetasunak eskuratzen dira; arte-lanek gu hunkitzeko gaitasuna sortzen da, eta, gainera, kultura-ondarea balioesten, errespetatzen eta hura zaintzeko interesa sortzen laguntzen du.

Gaitasun digitala eta informazioaren trataerakoaren gaitasunari ere egiten dio ekarpenik; fenomeno sozialak eta historikoak ulertu ahal izateko informazioa aurkitzearekin eta hura ulertzearekin zerikusia duten trebetasunekin lotuta dago ekarpen hori; irakasgaia ikasteko nahitaezko elementua da informazioa, neurri handi batean. Bereziki, errealitateari zuzenean eta zeharka erreparatzetik sortzen den informazioa bilatzen, lortzen eta tratatzen laguntzen du, baita informazioaren iturria idatzia (batez ere, testu-mota desberdinak eta informazio-iturri desberdinak irakurtzeko gaitasuna), grafikoa eta ikus-entzunezkoa denean ere, eta erabiltzen den euskarria bai papera bai informazio- eta komunikazio-teknologien bidez lortutakoa izan daiteke. Honako hauek dira gaitasun hori eskuratzeak dakartzan funtsezko ekarpenetako batzuk: objektibotasunaren eta egokitasunaren irizpideen arabera lortzen den informazioa aukeratzeko irizpideak ezartzea, garrantzitsuak eta hain garrantzitsuak ez diren alderdiak bereiztea, informazio-iturriak ezagutzea eta horiek alderatzea, eta informazioa modu kritikoan barneratzea edo aztertzea.

Hitzik gabeko hizkuntza, bestalde, askotan erabiltzen da errealitatea ulertzeko, eta oso lagungarria da ikonoen, ikurren eta irudien bidezko hizkuntzak ezagutzeko eta interpretatzeko. Bereziki, eta besteak beste, hauen kasua da: kartografiaren, irudiaren, estatistika-koadroen, diagramen hizkuntza.

Irakasgai honetan informazioak duen garrantzia dela-eta, gaitasun horren eta hizkuntza-komunikazioaren gaitasunaren arteko harremanak bitxiak dira. Irakurtzea eta idaztea bi ekintza dira, eta

informazioa bilatzen, biltzen eta prozesatzen laguntzen dute, eta eremuan erabiltzen diren testu-motak ulertzeko, osatzeko eta erabiltzeko ere ezinbestekoak dira. Horregatik guztiagatik, irakasgaiak hainbat diskurtso-mota erabiltzeko trebetasunak lortzen laguntzen du, batez ere, deskripzioa, narrazioa, hitzaldia eta argudioa erabiltzeko; hiztegia aberasten ere laguntzen du, eta, kontzeptu horiek arlo jakin bati badagozkio ere, ikaslearen ohiko hizkuntzaren zati izan behar lukete, edo irakasgaia bera ikasteko balio funtzionala duten kontzeptuak ulertzeko balio behar lukete.

Baina, horrezaz gain, nabarmena da Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgaiak gaitasun horrekin duen zerikusia; izan ere, lagungarria da, besteak beste, elkarrizketan jarduteko, epai kritiko eta etikoa osatzeko, ideiak sortzeko, ezaguera egituratzeko, diskurtsoari eta ekintza eta eginkizunei berei koherentzia eta kohesioa emateko. Gainera, bi ekintza horiek, komunikatzeak eta hitz egiteak, besteekiko eta inguruan ditugunekiko loturak eta harreman eraikitzaileak izateko trebetasunak izatea eskatzen dute; bestalde, beste kultura batzuk ezagutzeko aukera ematen dute, eta, horiek, ezagutu ahala, errespetatzen eta hartzen dira aintzat. Beraz, hizkuntza-komunikazioaren gaitasuna beharrezkoa da bizikidetzarako eta arazoei aurre egiteko ahalmen eraginkorrerako, eta, era berean, berdintasunerako eta estereotipoak eta adierazpen sexistak, etnizistak... ezabatzeko tresna ere izan daiteke.

Matematikarako gaitasuna lortzeko ere lagungarria da. Errealitatearen alderdi kuantitatiboak eta espazio-alderdiak ezagutzea lagungarria da gaitasuna lortzeko, baldin eta irakasgaiak honako hauek biltzen baditu: eragiketa errazak, magnitudeak, ehunekoak eta proportzioak, oinarrizko estatistika-nozioak, zenbaki- eta grafiko-eskalak, erreferentzia-sistemak edo forma geometrikoen ezaugarriak, eta, halaber, neurri-irizpideak, informazioen kodifikazio numerikoa eta haren irudi grafikoa. Lanabes horiek guztiak errealitate soziala deskribatzeko eta aztertzeko erabilita, ikasleek ikusiko dute horiek aplikatzeko egoera asko daudela, eta, ondorioz, matematika-gaitasunean ikasitakoa funtzionalago bihurtzen da.

Ikasten ikasteko gaitasuna, bestalde, ikaskuntza erraztuko duten lanabesak edukitzean datza, eta, horri esker, orobat, arazoen ikuspegi estrategikoa lortuko da, eta gerta daitezkeen aldaketak aurreikusten eta horietara modu positiboan egokitzen ikasiko da. Izan ere, etengabe aldatzen ari den gizarte honetan, herritar gisa bete-betean bizitzeko, edozein herritarrek ikas ditzakeen gizarte-edukiak ikaragarri zabalak eta konplexuak dira. Beraz, irakasgai honetarako curriculum-proposamena gauzatzeko, zenbait eduki hautatu behar dira, eta testuingurura egokitu; ondorioz, ez dira gizarte-eduki guztiak agortuko, ezta testuinguru guztiak ere. Horregatik da garrantzitsua ikaskuntza autonomoak gauzatzeko oinarrizko gaitasunak garatzea, zeren eta ikaskuntza autonomoaren bitartez gauza gehiago jakitea, aurretik ikasitakoak berrikustea eta azaleratzen ari diren gizarte- eta kultura-testuinguruetara egokitzea lortuko baitute. Horretarako, irakasgaiak zenbait arrazoibide-mota aplikatzeko ematen

dituen aukerak hartu behar dira abiapuntu. Batetik, datuen azterketatik abiatutako arrazoibide induktiboa, gizarte-gertaeren eta -egoeren interpretazioak osatzeko; eta, bestetik, arrazoibide hipotetiko deduktiboa, horren bidez beste berri batzuetarako arrazoi anitzeko lehen azalpen-hurbilketak osatzeko. Hori gutxi balitz, gizarte-errealitateak eta ideologiak, baita korronte zientifikoak ere —joerak eta aurreiritziak barne— hainbat ikuspegitatik lantzea posible denez, lan serioa nahitaezkoa da pentsamendu erlatiboa lantzeko eta herritar bakoitzaren gizarte-errealitateetan oinarrituta nork bere iritzia osatzeko gaitasuna lantzeko. Informazio-iturriei eta horien erabilerari buruzko ezaguerak ere ematen ditu, zenbait bitarteko erabilita, lortutako informazioa bilduz eta sailkatuz, baldin eta informazio horren azterketa egiten bada. Ekarpena bestelakoa ere izan daiteke, pentsatzeko, informazioa antolatzeko, gogoan hartzeko eta berreskuratzeko estrategiak sortzen laguntzen duenean; esaterako, laburpenak, eskemak edo kontzeptu-mapak.

Irakasgaia autonomiarako eta ekimen pertsonalerako lagungarria izateko, nahitaezkoa da plangintzetarako eta horiek gauzatzeko ekimenak bultzatzea, baita erabakiak hartzeko prozesuak bultzatzea ere; erabakiak hartzeko egoerak nabarmenago geratzen dira eztabaidetan eta bakarka edo taldeka egiten diren lanetan; izan ere, zenbait ekimen biltzen dituzte: ideiak sortu, aztertu, plangintza egin, ekin, egindakoa berrikusi, aurreikusitako helburuak eta lortutakoak alderatu eta ondorioak atera. Bestalde, irakasgaian ikasitakoak egiteko eta ekiteko lanabes gisa erabiltzeko balio behar du; hau da, gizarteak nola funtzionatzen duen eta hura nola dagoen antolatuta jakinda eta kritikoki aztertuta, aldez aurretik hobeak diruditen alternatibak irudikatzeko balio behar du, horien arabera jokatzeko. Horrenbestez, bakoitza zenbait talderen partaidea denez eta zenbait erreferentzia-talde dituenez, talde horien prozesu historikoak aztertzea baliagarria da erabakiak hartzen laguntzeko. Erakundeak ezagutuz gero (horiek nola funtzionatu eta antolatzen diren eta zein eskumen dituzten), hobeto jokatuko da hiritar gisa. Mikro eta makroekonomiari buruzko zenbait oinarrizko nozio jakiteak, halaber, familia-ekonomiaren arloan erabakiak hartzen laguntzen du, baita gizarte-bizitzan irizpide hobeak izanda parte hartzen ere. Beraz, azken finean, gizartea nola antolatzen den eta nola funtzionatzen duen hobeto ulertzeak taldeetan aktiboki eta modu sortzailean parte hartzen laguntzen du. Eta, era berean, lan-arloko etorkizunerako aukerak ikusten laguntzen die ikasleei: politikaren arloan, zuzenbidearen arloan, administrazioan, mota guztietako gizarte-zerbitzuetan, etab.

## HELBURUAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, honako gaitasun hauek lortzea izango da Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgaiaren helburua:

1.Gertaera sozialak bultzatzen dituzten prozesuak eta mekanismoak eta gertaera politiko, ekonomiko eta kulturalen arteko elkarrekintzak identifikatzea; ezaguera hori, ondoren, gaur egungo gizarteen bilakaera eragin duten kausak ulertzeko erabiliko da, baita gizarte horietan gizonezkoek eta emakumezkoek betetzen duten zereginaz ohartzeko eta haiek izaten dituzten arazo nagusiak zein diren ulertzeko ere. Horren guztiaren helburua izango da Historiaren ikuspegi zabala eta kritikoa eskuratzea.

2.Ingurune fisikoaren oinarrizko elementuak zenbait eskalatan identifikatzea, kokatzea eta aztertzea, elementu horien arteko elkarrekintza ulertzeko, giza taldeek espazioa eta hango baliabideak nola erabiltzen dituzten ulertzeko eta erabilera horiek eragiten dituzten ondorio ekonomiko, sozial, politiko eta ingurumenaren arlokoak baloratzeko. Horren xedea izango da eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko modua hobetzea.

3. Europako eta munduko geografia-aniztasunaren eta eremu geoekonomiko handien oinarrizko ezaugarriak identifikatzea, kokatzea eta autonomiaz aztertzea, baita Euskal Herriko ezaugarri fisikoak eta giza ezaugarriak ere. Horren guztiaren xede izango da etorkizunean behar bezala aurre egin ahal izatea intereseko gizarte-arazo edo –auzi orori.

4.Euskal Herriarentzat garrantzitsuak izandako gertaera historikoen prozesuak denboran eta espazioan identifikatzea eta kokatzea; horri esker, Euskal Herria osatzen duten lurraldeen bilakaera historiko, sozial eta kulturala ikuspegi globaletik antolatu eta garatzea. Hori guztia Europako historiaren testuinguruan identifikatu eta kokatuko dute ikasleek, horietako gertaera bakoitzaren esanahi politikoa, ekonomikoa eta kulturala aintzat hartuta.

5. Gizateriaren Historiako gertaera historiko eta prozesu garrantzitsuenak identifikatzea eta denboran eta espazioan kokatzea, haren bilakaeraren ikuspegi globala izateko eta hura interpretatzeko; eta, hala, komunitate sozialen aniztasunaren jatorria behar bezala ulertzeko.

6. Talde-lanak egitea eta gaur egungo gizarte-errealitateari buruzko eztabaidatan parte hartzea, jarrera ekintzaile, eraikitzaile, kritiko eta tolerantez eta partaidetza horren xedea talde-laneko teknikak eskuratzea eta gizartean egoki integratzea izanda. Eztabaida horietan, iritziek behar bezalako funtsa izan behar dute, eta elkarrizketa gizakien arazoei eta gizarte-arazoei aurre egiteko nahitaezko bidetzat jo behar da.

7.Euskal Herriko eta Euskal Herritik kanpoko arte-adierazpen garrantzitsuenak identifikatzea eta balioestea, gizadiaren arte-garapenari kultura guztiek egindako ekarpenak aintzat hartzeko eta balioesteko; eta, orobat, nork bere kulturako eta beste kulturetako historia-, arte-, kultura- eta natura-ondarea balioesteko eta

errespetatzeko, bere burua eta taldea aberasteko baliabidetzat hartuta.

8. Pertsona bakar eta konplexutzat ikustea ikasleak bere burua, eta bere kualitate nahiz akats pertsonalak identifikatzea, gainerako pertsonekiko harremanean. Ikaslea euskal herritar egiten ezaugarriez jabetzea eta ezaugarri horiek balioestea beren konplexutasun osoan; halaber, euskal herritartasuna beste talde batzuetako kidetzarekin eta gizateriako kidetzarekin partekatzea, gizarte bat eraikitzen laguntzeko, tolerantziako eta errespetuzko jarrerak hartuz.

9.Kultura-aniztasunari balioa ematea, herrien eta norbanakoaren nortasun-eskubidetzat hartuta; gure komunitate sozialen eta kulturalen aniztasuna aintzat hartuz, posible izango da horietan aktiboki parte hartzea, gainerako kulturekiko tolerantziazko eta errespetuzko jarrerak izanda.

10.Gaur egungo gizarteek dituzten arazo larrienak eta ustez horiek eragin dituzten kausa historiko-sozialak aztertzea eta ezagutzea, haiei buruz nork bere iritzi kritikoa eta arrazoitua egin ahal izateko. Halaber, ekintza eraginkorrak sustatzea eta abiatzea, pertsonen eta gizarte-taldeen arteko harremanak hobetzeko.

11.Geografiaren, Historiaren eta, oro har, Gizarte Zientzien ezaugarriak ikertzeko kontzeptu-tresnak, teknikak eta oinarrizko prozedurak aplikatzea, lan monografiko eta ikerketa txikiak egin ahal izateko (bakarka eta/edo taldeka), arloari dagokion hiztegia zehatz eta zorrotz erabilita.

12.Honako kategoria hauek antolatzea eta erabiltzea: denbora-orientazioa (iragana, orainaldia, etorkizuna); kokapen erlatiboa denboraren barruan (segida, aldiberekotasuna, diakronia, sinkronia); iraupena (gertaera faktualak, koiunturazkoak, egiturazkoak, iraupen labur, ertain edo luzeko fenomenoak); denboraren neurriak (denbora-unitateak, denbora eta kronologia historikoa). Horiek guztiek gizarteen bilakaera eta urteen joanean gerta daitekeena antolatzeko eta laburbiltzeko balio dute.

13.Hainbat iturritako informazioa zorroztasunez bilatzea, aukeratzea eta erlazionatzea; informazioa mota askotakoa izan daiteke: hitzezkoa, grafikoa, ikonoen, estatistiken eta kartografiaren bidez emandakoa, ingurune fisikoak eta sozialak ematen duena, eta komunikabideek eta informazio- eta komunikazio-teknologiek ematen dutena. Ikasleak behar bezala antolatuta eta ulertzeko moduan komunikatu behar ditu informazio-bilaketaren emaitzak.

14.Ikaslearen partaidetzako nahiz erreferentziazko taldeen eta erakundeen antolamendu-egiturak eta ohiko funtzionamendu-moduak aztertzea, gizarte demokratikoen baitan; betiere, horiek guztiek oinarritzat dituzten funtsezko balioak eta printzipioak aintzat hartuta, eta hiritarren eskubideei eta askatasunei erreparatuta.

Hori eginez, gizartean parte-hartze kontzientea, arduratsua, kritikoa eta erabatekoa bultzatu nahi da; diskriminazioa eta bidegabekeria eragiten duten jarrerak eta egoerak salatuko dira, eta eskubiderik gabeko edo nahitaezko baliabide ekonomikorik gabeko herri, talde sozial eta pertsonekin jarrera solidarioa hartuko da.

15. Europako erakundeak eta haien antolaketa politikoa eta administratiboa ezagutzea eta aztertzea, ulertu ahal izateko Europako Batasuna dela Europako herrien eta nazioen harreman- eta partaidetza-esparrua.

16. Irakasgaiaren edukiak nork bere erara eta sormenez adieraztea eta komunikatzea, zenbait hizkuntza erabilita datuak eta informazioak aukeratuta eta interpretatuta, eta nork bere ikaskuntza-prozesuari buruz hausnartuta.

## LEHENENGO MAILA

### EDUKIAK

1. eduki-multzoa. Eduki komunak.

Prozedurak

-Arloaren ikaskuntzarako hizkuntza-trebetasunak aplikatu: testu idatzien eta ahozko testuen ulermena, berariazko hiztegiaren interpretazioa eta erabilera, ahoz eta idatziz behar bezala adieraztea, etab.

- Geografiari, historiari, kulturari eta beste alderdi batzuei buruzko hipotesien planteamendua egin, formulatu eta egiaztatu.
- Lurra irudikatzeko zenbait kartografia-proiekzio ikasi.
- Eskala grafikoa eta zenbakizko eskala erabili.
- Eskala, ezaugarri eta euskarri (konbentzionalak eta digitalak) desberdinak dituzten irudiak, planoak eta mapak irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Geografian orientatzeko eta kokatzeko teknikak.
- Geografiaren errealitateari buruzko informazioa bildu eta prozesatu, paisaiak eta horietan gertatzen diren aldaketak zuzenean zein zeharka behatzeko teknikak aplikatuta.
- Gaikako mapak irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Informazioa, edozein dela iturria, lortzeko, interpretatzeko eta erregistratzeko jarraibideak (ikonografikoa, arkeologikoa, idatzia, landa-lanak, informazio-teknologiek ematen dutena, etab.).
- Lortutako informazioa banaka zein taldean idazteko jarraibideak (laburpenak, sintesiak, lan monografikoak, konparazio-koadroak, txostenak, ikerketa-lan txikiak... planifikatu eta egin).
- Zenbait euskarri erabilita, horien artean digitala, banaka zein taldean egindako lanen emaitzak (lan monografikoak, konparazio-lanak, ikerketa-lanak...) ahoz eta idatziz komunikatzeko jarraibideak.

- Aldiak, kulturak eta zibilizazioak, gertaera historikoak, datuak eta tokiak denboran eta espazioan kokatzeko jarraibideak.
- Kronologia-koadroak, denbora-lerroak eta friso historikoak osatzeko teknikak.
- Gizarte historikoen eta egungo gizarteen arteko aldeak eta berdintasunak identifikatzeko, aztertzeko eta alderatzeko teknikak.
- Gertaera historikoen kausalitate-aniztasuna aztertzeko jarraibideak: gertaera historikoen eta bilakaera- eta aldaketa-prozesuen kausak eta ondorioak identifikatu, eta horiek eragin zituzten faktoreekin lotu.
- Arte-lanen hainbat mota irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak, horien testuingurua kontuan hartuta.
- Garai eta kultura desberdinetako zenbait arte-lanen konparazio-analisiak egiteko eta beren arteko berdintasunak eta desberdintasunak hautemateko jarraibideak.
- Euskal Herriko eta Espainiako arkeologia-aztarnei eta ondare-elementuei buruzko informazioa biltzeko jarraibideak.
- Ingurunearen eta giza ekintzaren arteko elkarrekintzak aztertzeko jarraibideak, paisaia eratzean, gertaera geografiko jakinetan eta ingurumena degradatzean, besteak beste, islatzen direnak.

Jarrerak eta balioak

- Lurraldeak eta paisaiak aurkitzeko eta ezagutzeko jakin-mina, aniztasun hori zaindu beharreko aberastasuntzat jota.
- Espazioa aurkitzeko eta aztertzeko sentsibilitatea eta interesa, elementu fisikoen eta giza ekintzaren arteko elkarrekintzen adierazpentzat hartuta.
- Iraganeko errealitate sozialari buruz jakiteko interesa eta ikusmina eta gertaera historikoen aurrean jarrera kritikoa.
- Ingurumenak aukera asko ematen dituela jabetu, eta biodibertsitatea zaintzen laguntzearen eta garapen iraunkorraren aldeko jarrera aktiboa izan.
- Gizarte historikoen arte- eta kultura-adierazpenak balioetsi eta errespetatu.
- Giza taldeen kultura-ondarea den aldetik, gure ondare historiko eta artistikoa eta naturala balioetsi, errespetatu eta haiekin gozatu, eta hura zaintzearen, defendatzearen eta jakinaraztearen aldeko jarrera izan.
- Gizonezkoek eta emakumezkoek Historian izan duten zeregina balioetsi.
- Parte-hartze aktibo eta eraikitzailea, ahalegin pertsonala, erantzukizuna eta elkartasuna talde-lanak edo bestelako eginkizun kolektiboak egitean.
- Nork bere hutsegiteak eta okerrak naturaltasunez onartu, eta horiek zuzentzearen aldeko jarrera izan.

2. eduki-multzoa. Lurra eta ingurune naturalak.

- Lurraren irudikapena. Orientatzeko eta kokatzeko teknika geografikoak aplikatzea.

- Lurra eguzki-sisteman. Erliebearen, uren eta landaredIaren oinarrizko osagarriak. Eusten dioten elkarrekintzak. Horiek adierazteko irudiak behatu eta interpretatu. Klimaren eta klima-mota nagusien oinarrizko faktoreak, klimagramak eginda eta horiek interpretatuta, baita giza jarduerak klimari nola eragiten dion aztertuta ere.
- Euskal Herriaren natura-ezaugarriak. Kokapen geografikoa. Paisaia-aniztasuna. Horien elementu natural eta giza elementu bereizgarriak. Aldaketak eta babesteko beharra. Ozeano, itsaso, erliebe-unitate eta ibaien kokapena eta haien ezaugarriak.
- Kontinente, ozeano, itsaso, erliebe-unitate eta ibaien espazio-kokapena Espainian, Europan eta munduan. Giza jarduerak bertan egiten direnez, ingurune natural nagusien ezaugarriak, Espainiako eta Europako lurraldeei bereziki erreparatuta.
- Historian izan diren giza taldeen eta ingurunearen arteko elkarrekintzak, gizarteen eta haien egoeren arteko harremanen ezaugarriak aztertuta. Arrisku naturalen eta gizakiak eragindakoen arteko bereizketa. Ingurumen-arazoren bat aztertu; esaterako, giza eragina landaredian, uraren arazoa edo klima-aldaketa. Ingurumen-arazoak Euskal Herrian. Zenbait eremutan ingurumena babesteko abian jarritako politikak ezagutzen hasi (udaletakoak, autonomietakoak, estatuetakoak, Europakoak, gobernuz kanpoko erakundeetakoak...).

3. eduki-multzoa. Historiaurreko gizarteak, lehendabiziko zibilizazioak eta Antzinaroa.

- Historia-iturriak: motak: materialak, ikonografikoak, idatziak, ahozkoak, kartografikoak, digitalak. Horien ekarpena ingurune fisikoa eta gaur egungo eta iraganeko bizimoduak ezagutzeko.
- Denbora historikoa: kronologia, aldaketa eta iraupena. Denbora historikoaren adierazpen grafikoa. Periodizazio konbentzionalaren erabilera (historiaren garai eta aldi kronologikoak) eta beste kultura batzuetan denbora neurtzeko dituzten moduen azterketa. Kausalitate-aniztasuna: gertaera eta prozesu historikoen kausak eta ondorioak.
- Hominizazio-prozesua. Historiaurreko herrialdeen bizimoduak. Ehiztariak eta biltzaileak. (antolaketa soziala, ekonomia, sinesmenak, arte-adierazpenak...). Iraultza neolitikoak eragindako aldaketak. Lurralde espainiarreko Historiaurreko alderdi esanguratsuak. Historiaurreko aztarnen kokapena Euskal Herrian, Espainian eta munduan.
- Euskal lurraldeetako lehendabiziko biztanleak. Euskal Herriko eta haren inguruko historiaurreko kulturetako adierazpen nagusiak. Euskara: jatorria eta bilakaera. Beste hizkuntza indoeuropar boteretsuago batzuekiko harremana.
- Lehendabiziko hiri-zibilizazioak. Mesopotamia eta Egipto. Kokapen geografikoa eta kronologikoa. Ezaugarriak.
- Mundu klasikoa: Grezia eta Erroma. Atenasko demokrazia. Polisa. Erromatarrek ekonomia, administrazioa eta politika nola antolatzen zuten. Erromatar Inperioa sendotzea eta ondoren gainbehera etortzea eragin zuten era askotariko faktoreak. Hispania erromatarra:

erromanizazioa. Hiria eta hiriko bizimodua. Arte klasikoa. Erromanizazioa euskal eremuan.

- Mundu klasikoaren kultura-ondarea eta gure egungo zibilizazioari egindako ekarpenak. Gure kultura, beste kultura batzuen arteko harremanaren emaitza. Latinaren eragina euskararekiko.
- Kristautasunaren jatorria eta nola hedatu zen. Erromatar Inperioa nola amaitu zen eta mediterraniar batasuna nola zatitu zen. Kristautasuna Euskal Herrian nola sortu zen.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. Zehatz-mehatz eta zorroztasunez interpretatzea ezaugarri eta eskala desberdineko proiekzio kartografikoak. Koordenatuak erabilita mapetan tokiak edo espazioak kokatzea; legenda eta ikurren bidez irudikatutako espazioei buruzko informazioa lortzea, eta ondorioak ahoz edo idatziz jakinaraztea.

- Esferetan, planisferioetan eta mapetan meridiano eta paralelo nagusiak identifikatzen ditu.
- Toki jakin bat eta zenbait gertaera geografiko kokatzen badaki hainbat eskalatako atlasetan eta mapetan, eta, hala dagokionean, koordenatu-sistema erabiltzen ere bai.
- Mapak, planoak eta horietan adierazten diren zeinu konbentzionalak abiapuntu hartuta, geografiako eta historiako gaiei buruzko informazio garrantzitsuena biltzen du eta azaltzen du, ahoz edo idatziz.
-Distantziak kalkulatzen ditu eta orientazioa lantzen du, zenbait mapa eta plano erabilita.
-Zenbait irudikapen espazial erabiltzen ditu, azalera desberdinak adierazteko.
- Gaikako mapa desberdinak alderatu, zenbait korrelazio hauteman eta deskribatzen ditu, ahoz edo idatziz.

2. Zenbait eremutako ingurune fisikoa osatzen duten oinarrizko elementuak mapan kokatzea, Euskal Herrikoa abiapuntu dela (ozeanoak eta itsasoak, kontinenteak, erliebe-unitateak eta ibaiak), eta leku horietako ezaugarri nagusiak aztertzea.

- Euskal Herriko mapan, Bizkaiko Golkoa, erliebe-unitate nagusiak eta ibai nagusiak identifikatzen eta kokatzen ditu.
- Iberiar Penintsulako mapan hura inguratzen duten ozeanoak eta itsasoak, erliebe-unitate nagusiak eta ibai nagusiak identifikatzen eta kokatzen ditu.
- Esferetan, planisferioetan eta mapetan, munduko ozeanoak, kontinenteak eta erliebe-unitate eta ibai nagusiak identifikatzen eta kokatzen ditu.
- Hainbat eskalatako mapak abiapuntu hartuta (topografikoa, planisferioa...), horietan irudikatzen den espazioaren oinarrizko ezaugarri fisikoak deskribatzen ditu.

- Zenbait ezaugarri fisiko adieraztea (erliebe-unitateena, batik bat), mapa jakinak erabilita (sestra-kurbak, profil topografikoak...).

3. Zenbait prozedura erabilita, paisaia nagusiak osatzen dituzten ezaugarri fisiko nabarmenenak alderatzea eta laburbiltzea (erliebea, klima, urak eta elementu biogeografikoak), Euskal Herriari eta Espainiari garrantzi berezia emanda; horiek espazioan kokatzea eta giza taldeei ematen dieten aukeren erlazioa egitea.

- Klimaren elementuak identifikatzen eta deskribatzen ditu (tenperatura, prezipitazioak, presio atmosferikoa...), eta Euskal Herriko, Iberiar Penintsulako eta munduko klima guztien ezaugarriak zehazteko erabiltzen ditu, baita gizakiaren bizitzaren zein alderdiri eragiten dioten edo eragin diezaioketen adierazteko ere.
- Klimaren faktoreak zein diren badaki (altitudea, latitudea, kontinentaltasuna, erliebea...), eta Euskal Herriko, Espainiako eta planetako klimak azaltzeko erabiltzen ditu.
- Euskal Herriko, Espainiako eta planetako klima-zonalde nagusiak identifikatzen eta kokatzen ditu, hainbat eskalatako mapetan.
- Espazio jakin baten klima-ezaugarriak interpretatzen ditu, klimagramak erabilita.
-Klimen eta paisaia naturalen oinarrizko ezaugarriak laburbiltzen ditu, koadro sinoptikoak erabilita.
- Euskal Herriko, Espainiako eta planetako paisaia-unitateen irudiak aztertzen ditu. Horiek dituzten elementuen ezaugarriak zehazten ditu, baita beren arteko erlazioa eta aldeak ere, zenbait eskalatako mapetan kokatzen ditu, eta giza taldeekiko duten eraginaren eta aukeren adibideak ematen ditu.
- Inguruan duen paisaiari zuzenean erreparatuta, hari buruzko informazioa biltzen du, hura osatzen duten elementuei buruzko datuak erregistratzen ditu, jatorri naturalekoak eta giza jatorrikoak bereizten eta zerrendatzen ditu, eta han bizi diren biztanleen eguneroko bizitzan nola eragiten duten azaltzen du, zenbait adibide emanda.

4. Giza ekintzak ingurune naturalari eragindako inpaktuak identifikatzea eta zenbait adibide azaltzea, eztabaidak antolatzea kausak eta ondorioak aztertzeko, eta horiek murrizteko (tokian-tokian zein oro har) hartu behar liratekeen neurriak eta jarrerak adieraztea.

- Paisaia jakinetan izandako aldaketa-prozesuak erakusten dituzten irudiei erreparatzen die; horiek eragin ahal izan dituzten giza faktoreekin lotzen ditu (nekazaritza-ustiapenak, industria-jarduerak, komunikabide-sareak, turismoaren garapena...).
- Zenbait iturritatik, informazioa biltzen eta gaur egungo ingurumen-arazo nagusiak deskribatzen ditu; arazo horiek eragin dituen arrazoi posibleak adierazten ditu eta badaki gizakien jarduerek, indibidualek zein kolektiboek, natura hondatzeko eragin ditzaketen ondorioak aurreikusten.

- Euskal Herrian natura kaltetzen duten zenbait arazo zehatzez ohartzen da, baita eragiten dituzten kausez ere.
- Inguru hurbileko ingurumenari zuzenenean behatuta, ingurumen-arazoei buruzko informazioa, arazo horien kausei buruzkoa eta biztanleengan eragiten dituzten ondorio zehatzei buruzkoa biltzen du, eta, beste ikaskideekin batera, jarduera-proposamenak egiten ditu ondorioak arintze aldera.
- Bere ohiturei eta inguruan dituenen ohiturei –kontsumoarekin zerikusia dutenei, batik bat– erreparatuta, zenbait ohiturak ingurumenean eragiten dituzten arazoak eta ondorio negatiboak identifikatzen ditu, eta, horiek zuzentze aldera, zenbait proposamen adierazten ditu.
- Zenbait komunikabidetatik (bibliografia, prentsa, sarea...), deskribatutako ingurumen-arazo bakoitzerako dauden alternatibei buruzko informazio bildu eta laburbiltzen du, baita natura babestea asmotzat duten zenbait erakunderen ekimenei buruzko informazioa eta talde ekologistei eta haien proposamenei buruzkoa ere.

5. Kronologia-unitateak eta konbentzioak erabiltzea, denbora historikoa eta bilakaera- eta aldaketa-nozioak grafikoki adierazteko, eta, gainera, aldi historikoei orokorrean aplikatzeko eta bereziki Euskal Herriko historiaurreko eta antzinako historiako gertaerak eta prozesuei aplikatzeko, baita orokorrean aplikatzeko ere.

- Historiaren garai eta aldi kronologiko nagusiak identifikatzen ditu, baita historiaurreko ikonografia eta prozesuak ere; horiek kronologiaren arabera ordenatzen ditu eta grafikoetan adierazten ditu.
- Kronologia-unitateak ikasi eta erabiltzen ditu (milurtekoak, mendeak, hamarkadak, urteak...); urte jakinak dagozkien mendeekin lotzen ditu; Kristo aurrekoak eta ondorengoak bereizten ditu, eta denbora-aldien, prozesuen, gertaera historikoen eta historiaurreko gertaeren iraupenari buruzko kalkuluak behar bezala egiten ditu.
- Gidoi batean adierazitako urratsei jarraituta, ardatz kronologikoa egiten du; halaber, badaki zenbait denbora-unitate kokatzen (milurtekoak, mendeak, hamarkadak...), 0 urtea adierazten eta Kristo aurreko eta ondorengo garaiak bereizten.
- Euskal Herriko, Iberiar Penintsulako eta munduko historiaurreko eta antzinako historiako zenbait gertaera, prozesu eta aldi esanguratsuak ardatz kronologikoan kokatzen ditu.
- Friso kronologiko batean, badaki denbora-epe edo zibilizazio jakin batean izandako zenbait gertaera eta prozesu (sozialak, ekonomikoak, teknologikoak, politiko-militarrak, artistikoak...) irudikatzen eta horien arteko nolabaiteko lotura azaltzen, eta denboran bere horretan irauten dutenak eta aldatu direnak identifikatzen ditu.
- Friso kronologiko batean, badaki Antzinaroko bi zibilizazio edo gizartetan, edo gehiagotan, izandako gertaerak eta prozesuak irudikatzen, baita beren artean dauden loturak adierazten ere.

6. Iraultza neolitikoak gizadiaren bilakaeran eragin zituen aldaketak identifikatzea, eta zenbait laburpen-prozedura erabilita

horiek adieraztea, eta izan zuen eragina eta eragin zituen ondorioak balioestea, gizarte harrapariak osatzen zituzten elementuekin alderatzean.

- Hominizazio-prozesuari buruzko eskema-laburpena egiten badaki.
- Gizarte harraparien bizimoduaren alderdi batzuei buruzko galderak egiten dizkio bere buruari (etxebizitza, jantziak, elikagaiak, tresnak, giza taldeak...), eta, zenbait iturritatik, horiei buruzko informazioa biltzen du, eta deskribatu egiten du, termino egokiak erabilita.
- Gizarte neolitikoen bizimoduaren alderdi batzuei buruzko galderak egiten dizkio bere buruari (etxebizitza, jantziak, elikagaiak, tresnak, giza taldeak...), eta, zenbait iturritatik, horiei buruzko informazioa biltzen du, eta deskribatu egiten du, termino egokiak erabilita.
- Gizarte harraparietako eta gizarte ekoizleetako gizakien bizimoduen arteko konparazio-taula egiten badaki; ondorioak ateratzen ditu, eta gizadiak bizi izandako aurrerapenek eragindako ondorioak balioesten ditu.
- Euskal Herriko, Iberiar Penintsulako eta munduko mapetan historiaurreko aztarna nagusiak kokatzen badaki.

7. Lehendabiziko zibilizazio historikoetako eta greziar zibilizazioko zenbait ezaugarri nabarmen bereiztea talde-lanean, greziar zibilizazioko jatorrizko elementuak identifikatzea eta ondorioak adieraztea, zenbait euskarri erabilita, horien artean digitala.

- Mesopotamiako, antzinako Egiptoko eta Greziako zibilizazioen geografia-eremuak kokatzen ditu mapetan; horien zenbait ezaugarri adierazten ditu, eta ezaugarri horiek garapenean izan zuten eragina azaltzen du.
- Ardatz kronologikoetan, Mesopotamiako, antzinako Egiptoko eta Greziako zibilizazioen denbora-aldiak kokatzen badaki; horretan, zenbait gertaera historiko garrantzitsu adierazteko gai da, eta beren artean izan zitezkeen harremanak zehazten ditu.
- Mesopotamiako, antzinako Egiptoko eta Greziako zibilizazioen ezaugarri nagusiei buruzko informazioa biltzen du (eguneroko bizimodua, gizartea, ekonomia, politika...) zenbait iturritatik, horien artean, lehen mailako dokumentu-iturrietatik; horiek deskribatzen ditu, eta, haien artean, konparazioak egiten ditu.
- Mesopotamiako, antzinako Egiptoko eta Greziako zibilizazioetako arte-lanak identifikatzen ditu; horien zenbait ezaugarri deskribatzeko, alderatzeko eta utzi diguten arte-ondarea balioesteko gai da.

8. Zibilizazio erromatarraren antolaketa politikoaren, ekonomikoaren eta sozialaren ezaugarriak bereiztea, Euskal Herrian eta Hispanian erromanizazioak izan duen garrantzia eta haiek gure herrialdean utzitako ondarea balioestea.

- Mapetan badaki kokatzen Zibilizazio erromatarra non sortu eta nondik barrena hedatu zen —eremu geografikoa—; friso kronologiko

batean, gertaera eta denbora-aldi garrantzitsuenak adierazten badaki, eta antzinaroko beste zibilizazioekin lotzen ditu.

- Zibilizazio erromatarraren ezaugarri nagusiei buruzko informazioa bildu (eguneroko bizimodua, gizartea, ekonomia, politika...) eta deskribatzen du.
- Erromatar Inperioa Europa osoan finkatzea eragin zuten kausak aztertzen ditu, baita ondorengo gainbehera eragin zutenak ere.
- Zibilizazio erromatarrari dagozkion arte-lanak identifikatzen ditu; zenbait ezaugarri deskribatzeko gai da, eta utzi diguten arte-ondarea balioesten du.
- Zenbait informazio-iturri kritikoki interpretatzen ditu, erromanizazioak Hispanian eta Euskal Herrian izan zuen garrantziari buruzko ondorioak ateratzeko.

9- Lehendabiziko zibilizazio historikoek (Egiptoko, Mesopotamiako, Greziako eta erromatar zibilizazioak) mendebaldeko gure zibilizazioari egindako ekarpenak deskribatzea.

- Lehendabiziko zibilizazioek mendebaldeko gure zibilizazioari egindako ekarpenak identifikatzen ditu, greziar eta erromatar zibilizazioenak bereziki.
- Ekarpen horiei buruzko adibide jakinak deskribatzen ditu; esate baterako, artearen, kulturaren, filosofiaren eta hizkuntzaren arlokoak.
- Greziako zibilizazioak mendebaldeko zibilizazioari egindako ekarpenen adibide zehatzak deskribatzeko gai da.
- Euskal Herrian eta Espainian dauden zenbait aztarna erromatar deskribatzeko gai da; orobat, badaki mendebaldeko zibilizazioari egindako ekarpen kulturalak zein diren.

10. Informazio-iturri idatzietatik geografia- edo historia-edukiak kritikoki aztertzea, eta horien bidez lortutako informazioa behar bezala idatzita jakinaraztea.

- Informazio-iturriak jatorriaren eta motaren arabera sailkatzen ditu.
- Historiari buruzko ikerlanak egiteko informazio-iturriek duten garrantzia aztertzen du, haien zorroztasuna eta ikuspuntua kontuan hartzen du eta badaki behin-behinekoak direla.
- Indusketa arkeologikoetan oinarritutako informazioa biltzen du, historiaurrea lantzeko iturri nagusitzat hartzen baititu.
- Zehatz-mehatz definitzen eta mugatzen du landuko duen gaia, eta erantzun nahi dituen galdera edo galderak argi eta garbi adierazten ditu.
- Gai jakin bat lantzeko, informazio-iturri egokiak aukeratzen ditu (bibliografia, fitxategia, estatistika-iturriak, internet...).
- Informazio egokia aukeratzen du eta ideia nagusiak biltzen ditu.
- Testu idatziak irakurtzen eta ulertzen ditu.
- Bildutako informazioa erregistratzeko, euskarri egokiak hautatzen edo sortzen ditu.
- Zenbait euskarri erabilita —besteak beste, euskarri digitala— lortutako informazioa komunikatzen du, laburpenak, eskemak,

koadroak, grafikoak eta antzekoak eginez, eta, horretarako, termino egokiak erabiltzen ditu.

## BIGARREN MAILA

### EDUKIAK

1. eduki-multzoa. Eduki komunak

Prozedurak

- Arloaren ikaskuntzarako hizkuntza-trebetasunak aplikatu: testu idatzien eta ahozko testuen ulermena, berariazko hiztegiaren interpretazioa eta erabilera, ahoz eta idatziz behar bezala adieraztea, etab.
- Demografiari, historiari, kulturari eta beste alderdi batzuei buruzko hipotesien planteamendua egin, formulatu eta egiaztatu.
- Demografia-datuak eta -grafikoak irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak (barra-diagramak, biztanleriaren piramideak...), baita informazio estatistikoa grafikoetara pasatzeko ere.
- Lehen eta bigarren mailako iturrietatik informazioa lortzeko, erregistratzeko eta tratatzeko jarraibideak (ingurukoa, ikonografikoa, arkeologikoa, idatzia, materialak, informazio-teknologiek ematen dutena, etab.).
- Estatistika-iturrietan (zentsuak, erroldak eta erregistroak) biztanleriari buruzko informazioa biltzeko jarraibideak.
- Informazioa erregistratzeko eta tratatzeko teknikak.
- Lortutako informazioa banaka zein taldean idazteko jarraibideak (laburpenak, sintesiak, lan monografikoak, konparazio-koadroak, txostenak, ikerketa-lan txikiak... planifikatu eta egin). Eta lortutako emaitzak ahoz komunikatzeko ere bai.
- Aldiak, kulturak eta zibilizazioak, gertaera historikoak, datuak eta tokiak denboran eta espazioan kokatzeko jarraibideak. Denbora-segiden adierazpen grafikoa.
- Historia-mapak osatzeko jarraibideak.
- Aldaketa-prozesuei erreparatzeko jarraibideak.
- Denbora-segiden, denbora-lerroen eta friso historikoen grafikoak egiteko teknikak.
- Gizarte historikoen eta egungo gizarteen arteko aldeak eta berdintasunak identifikatzeko, aztertzeko eta alderatzeko teknikak.
- Gertaera historikoen kausalitate-aniztasuna aztertzeko jarraibideak: gertaera historikoen kausak eta haiek eragindako ondorioak zein diren jakin, bakoitzaren izaerak bereizi eta gertaera sozialen kausalitate-aniztasuna identifikatu.
- Arte-lanen hainbat mota irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak, horien testuingurua kontuan hartuta.
- Garai desberdinetako arte-estiloen oinarrizko elementuak hautemateko jarraibideak, zuzenean zein zeharka behatuta.
- Euskal, espainiar eta europar eremuetako lan esanguratsuenen interpretazioa, nor bere kultura-testuinguruan.

- Garai eta kultura desberdinetako zenbait arte-lanen konparazio-analisiak egiteko eta beren arteko berdintasunak eta desberdintasunak hautemateko jarraibideak.
- Ingurunearen eta giza ekintzaren arteko elkarrekintzak aztertzeko jarraibideak, paisaia eratzean, gertaera geografiko jakinetan eta hirietako arazoetan, besteak beste, islatzen direnak.
- Egungo demografiaren joerak aztertzeko eta horiek eragiten dituzten ondorioak aztertzeko jarraibideak.
- Demografiaren ezaugarriei eta joerei buruzko ikerketa errazak planifikatzeko eta egiteko jarraibideak, horretarako informazio grafikoa eta kartografikoa erabilita eta sortuta.
- Kulturen arteko desberdintasunak aztertzeko jarraibideak.
- Gaur egungo gertaera edo egoera garrantzitsu batekin zerikusia duen Erdi Aroko edo Aro Modernoko alderdiren bat aztertzeko jarraibideak.

Jarrerak eta balioak

- Espazioa aurkitzeko eta aztertzeko sentsibilitatea eta interesa, elementu fisikoen eta giza ekintzaren arteko elkarrekintzen adierazpentzat hartuta.
- Iraganeko errealitate soziala nolakoa izan zen jakiteko interesa eta ikusmina, baita gaur egungo gure gizartearekin duten zerikusia jakiteko ere; gertaera historikoen aurrean jarrera kritikoa izan.
- Gizarte historikoen arte- eta kultura-adierazpenak balioetsi eta errespetatu.
- Kultura-ondarea eta gure ondare historiko eta artistikoa balioetsi, errespetatu eta haiekin gozatu, eta hura zaintzearen, defendatzearen eta jakinaraztearen aldeko jarrera izan.
- Egungo demografia-joerak eta haren eraginak balioetsi.
- Gizonezkoek eta emakumezkoek Historian izan duten zeregina balioetsi.
- Enpatia historikoa izan eta iraganaren eta orainaldiaren arteko erlazioak ezarri.
- Gizarte guztietako arte- eta kultura-adierazpenak balioetsi eta errespetatu.
- Euskal Herriko hizkuntza- eta kultura-aniztasuna taldearen faktore aberasgarritzat hartu.
- Euskal gizartean integratzen diren beste kultura batzuetako pertsonak eta taldeak onartu, errespetatu eta haiekiko enpatia eta elkartasuna adierazi, eta aniztasuna elementu aberasgarritzat hartu.
- Parte-hartze aktiboa eta eraikitzailea; norberaren ahalegina, erantzukizuna eta elkartasuna talde-lanak edo bestelako eginkizun kolektiboak egitean.
- Nork bere hutsegiteak eta okerrak naturaltasunez onartu, eta horiek zuzentzearen aldeko jarrera izan.

2. eduki-multzoa. Biztanleria eta gizartea.

- Biztanleria: demografiari buruzko oinarrizko kontzeptuak (hazkunde demografikoa, migrazioak, bizi-itxaropena, egitura, demografia-ereduak, iraganeko eta egungo demografia-joerak). Kausak eta emaitzak. Biztanleriaren egitura eta banaketa, eta tokian tokiko

eta munduko egungo demografia-joerak. Munduan gaur egun gertatzen ari diren biztanleria-mugimenduen migrazio-joerak eta aurreikus daitezkeen ondorioak.

- Gaur egungo gizarteak. Egitura: adina, sexua, lanbidea, ikasketa-maila, hizkuntza-eskakizuna eta mugikortasuna. Aniztasuna. Kultura anitzeko gizarteak erreferentziazko herrialdeetan, beste eremu batzuetako herrialdeetan eta beste garapen-maila batzuetako herrialdeetan. Kultura desberdinen arteko harremana. Desberdintasun sozialaren faktoreak eta arazoak: gutxiengoak, migratzaileak eta baztertutako taldeak, arrazismoa, gatazka etnikoak eta erlijiozkoak, genero-indarkeria...; eremuak: ingurukoak zein nazioartekoak. Espainiako eta Europako gizarteen ezaugarriak. Migrazio-mugimenduak. Demografiaren arloan eta kulturaren arloan aurreikus daitezkeen ondorioak. Egungo gizarte- eta kultura-mugimenduak.
- Euskal Herria: mendebaldeko gizarte modernoa, nazio-nortasun eta gizarte-sentsibilizazio handikoa. Etorkizuna: Demografiaren arloan eta kulturaren arloan aurreikus daitezkeen ondorioak. Etorkizunerako erronkak: Bakezko elkarbizitzarako eredua lortzea, demokratikoa eta zibilizazioak eta kulturak integratuko dituena, nork bere nortasuna galdu gabe: hiritarren mugimenduak eta erakunde bakezaleak. Euskal emigrazioa eta immigrazioa, integrazio soziala eta kulturala: eragin ekonomikoak eta sozialak, eta hezkuntza- eta kultura-eskakizunak.

- Landa-eremua eta hiri-eremua: biztanleria-motak. Bizimodua hiri-eremuan. Hiri-egituraren funtzioak eta espazioa identifikatzea. Hiri-kontzentrazio eta demografia-gune nagusien kokapena, tokian tokikoak zein mundukoak. Biztanleriaren banaketarekin zerikusia duten giza faktoreak eta faktore naturalak. Komunikazioaren eta garraioaren egiturak, eta haien eragina hiri-espazioa eta hiri-ingurua antolatzeko. Egungo joerak: urbanizazio-prozesuen azelerazioa eta horien eragin-eremuen hedadura, landa-eremuen berrantolaketa. Hiri-hierarkia. Euskal Herriko lurraldeetako eta haren inguruko hiri-eremuaren zenbait eredu. Hiriak. Hirietako arazoak.

3. eduki-multzoa. Industriaurreko gizarteak.

- Erromatar inperioaren zatiketa eta islamiarren hedatzea. Baskonia-Akitania, bisigodoen, frankoen eta Islamaren artean. Herrialde horien arteko bakezko harremanak eta haserreak.
- Erdi Aroko gizartea. Gizartea, ekonomia eta botere politikoa Europa feudalean. Gizarte-estamentuen funtzioak eta horien lege arloko desberdintasunak. Erdi Aroko monarkien jatorria eta bilakaera.
- Berant Erdi Aroko aldaketa ekonomikoak eta politikoak. Hirien susperraldia eta merkataritza-harremanak. Landa-arloko arazoak. Gerra, gosea eta izurritea. Bandokideen arteko borrokak Euskal Herrian.
- Iberiar Penintsula Erdi Aroan. Garai hartan aldi berean zeuden politika-unitateen kokapena, espazioan zein denboran. Al-Andalus eta kristau-erresumak. Bizimodua eta kulturen eta erlijioen elkarbizitza, hiri kristauetan, hiri musulmanetan eta hiri juduetan. Landa-ekonomia, hiribilduak nola fundatu ziren eta merkataritza.

- Nafarroako erresuma eta Pirinioetatik hegoaldera eta iparraldera dauden euskal lurraldeak: lurralde-antolakuntzaren bilakaera, estatu europarren eraketa-prozesuan. Euskal lurraldeen dependentzia politikoko barne- eta kanpo-harremanak. Foruak: sorrera eta bilakaera lurraldeetan. Ezaugarriak.
- Estatuen arteko elkarbizitza baketsua eta belizista. Ehun Urteko Gerrak Zuberoan eta Lapurdin izandako ondorioak. Pertsona garrantzitsuen eragina (Iruñeko eta Nafarroako errege-erreginak, Akitaniako Leonor...).
- Erdi Aroko kultura eta artea. Kulturaniztasun- eta arte-aberastasuna Erdi Aroko Europan. Elizaren eragina kulturan eta pentsamoldean. Monasterioak eta katedralak. Done Jakue bideko kultura eta artea.
- Estatu modernoaren ezaugarriak Europan. Monarkia modernoen sendotzea. Aurkikuntza, esplorazioa eta konkista. Europarrek ezagutzen zuten munduaren zabalkuntza. Munduko lehendabiziko sistema koloniala nola eratu zen. Ondorio sozio-ekonomikoak. Erlijio-gatazkak. Kristau-erreforma eta kontrarreforma katolikoa.
- Iberiar Penintsularen bilakaera politikoa eta ekonomikoa garai modernoan. Monarkia hispaniarra eta Amerika kolonizatzea, testuinguru europarrean. Estatu espainiarraren eta frantsesaren eraketa eta boterea. Habsburgotarrak eta Borboitarrak. Mundu-nagusitasunean izandako aldaketak: Lehendabizi Espainia, gero Frantzia eta, ondoren, Holanda eta Ingalaterra.
- Foru-sistemaren eraketa eta finkapena euskal lurraldeetan. Erakunde nagusien sorrera eta haien ezaugarriak, eta egungo zenbait erakunderekiko dituzten harremanak. Nafarroako erresuman historian izandako aldaketak. Gaztelaren gerra eta konkista, eta nola utzi zion erresuma independente izateari.
- Euskal Herriko ekonomiaren ezaugarriak. Burdinolak. Nabigazioa eta itsas merkataritza. Bilboko portua eta kontsulatua. Bale-arrantza. Euskaldunak Amerikako konkistan eta kolonizazioan. Artoa sartzea.
- Artea eta kultura garai modernoan: pentsamendu errenazentista, humanismoa eta aniztasuna. Bilakaera zientifikoa. Artea Errenazimenduan, Barrokoa: Euskal Herrian nola gauzatu zen.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. Demografia-joerak baldintzatzen dituzten faktoreak deskribatzea, demografiari buruzko oinarrizko kontzeptuak ezagutzea eta erabiltzea demografia-azterketa egitean; joera nagusien ezaugarriak azpimarratzea eta horiek euskal eta espainiar demografiaren egungo egoeraren eta ondorioen azterketa egiterakoan aplikatzea.

- Ikasleak biztanleriaren oinarrizko demografia-adierazleak hautematen ditu (biztanleria-dentsitatea, jaiotza- eta heriotza-tasak, hazkunde begetatiboaren adierazlea, biztanleriaren mugimenduak...), eta, horiekin guztiekin, kalkuluak egiten ditu.
- Zenbait informazio-iturri eskura dituela, biztanleriari buruzko estatistika-informazioa bilatu eta aukeratzen du (datu-

baseak, estatistika-koadroak, komunikabideak, sarea...); demografia-datuei buruzko mapak eta adierazpen grafikoak egin eta interpretatzen ditu (biztanleriaren piramideak, lerro- eta barra-grafikoak...), eta demografia-eredu nagusiak identifikatzeko erabiltzen ditu.

- Datu-taulen eta grafikoen bidez egindako lana eskura duela, Euskal Herriko, Espainiako eta munduko biztanleria-bilakaeraren faseak hautematen ditu ikasleak, eta kausak ere badakizki.
- Gure gizarteko egungo demografia-joera eta -arazo nagusiak identifikatzen eta deskribatzen ditu ikasleak (superpopulazioa, migrazioa, zahartzea), eta, horretarako, terminologia egokia erabiltzen du; bestalde, horiek zer eragin sozial, ekonomiko, erlijiozko, politiko, ingurumenezko, kultural eta abar ekarri dituen ikasi du.
- Demografia-arazoei konponbidea emateko proposamenei buruzko balioespenak egiten ditu (jaiotza-kontrola, jaiotza-tasa handitzeko laguntzak, hezkuntza-programak, justizia soziala eta ekonomikoa...).

2. Euskal eta espainiar gizarteetako egungo ezaugarri nagusiak aztertzea, eta gizarte horiek osatzen dituzten talde sozialak bereiztea; immigrazioak aniztasuna areagotzea eragiten duela balioestea; eta desberdintasun soziala islatzen duen benetako adibideren bat abiapuntu hartuta, nork bere jarrera adieraztea taldearen aurrean, aukera eta ikuspuntu desberdinak eztabaidatzeko.

- Euskal eta espainiar gizarteetako ezaugarri bereziei buruzko datuak eta estatistikak biltzen ditu ikasleak, gaur egungoei zein iragan hurbilekoei buruzkoak (familia, talde sozialak, mugikortasun soziala, biztanleen jatorria, balioak, eguneroko bizimodua...); horiek, demografia-kontzeptuak zuzen erabilita, deskribatzeko gai da, eta, halaber, alderatu eta izan diren aldaketez jabetzen da, bereziki, emigrazioarekin zerikusia duten aldaketez.
- Mendebaldeko gizarteek dituzten zenbait arazo identifikatzen eta deskribatzen ditu (desberdintasunak, diskriminazioa, indarkeria, arrazismoa...), baita horiei aurre egiteko dauden proiektu etikoak eta erakundeak ere.
- Bidezkoak ez diren egoera sozialen aurrean, sentsibilitatea adierazten du; horiei aurre egiteko moduak irudikatzen ditu, baita txartzat hartutako egoera horiek hobetzeko laguntza-moduak ere.
- Hainbat gatazka-mota eta gatazka horiek eragiten dituzten kausak identifikatu eta deskribatzen ditu haren inguru hurbilean edo beste nonbait —esaterako, emigrazioarekin zerikusia duten albisteak, komunikabideen bitartez jakindakoak—; ikasleak gatazka horiek naturaltasunez hartzen ditu, gizarte europarretan orokorrean, eta euskal eta espainiar gizarteetan bereziki, egoeraren araberako fenomeno izatetik, pixkanaka-pixkanaka, egitura-fenomeno izatera pasatzen ari dela ohartzen baita; hainbat ideiak eta interesek eragiten dituztela ohartzen da eta, halaber, aurre egiteko prozedura bakezaleak erabiliz gero arazo horiek elkarbizitza hobetzeko aukera ematen dutela; horrezaz gain, eragindako ondorio anitzei buruzko epaia arrazoitzen du.

- Kultura-aniztasuna herrien eta gizabanakoen nortasun-eskubidetzat hartzen du ikasleak; beste kulturekiko tolerantziazko eta errespetuzko jarrera du; hizkuntza eta kultura desberdina duten ikasle etorkinak integratze aldera antolatzen diren ekimenetan parte hartzen du, eta etorkinek euskal hizkuntza eta kultura jakin dezaten laguntzen du, baita haiekiko errespetua izan dezaten ere.
-Kultura desberdina duten taldeetan parte hartzen eta laguntzen du, gero eta kultura gehiago dauden euskal gizartean; bertako ezaugarriak balioesten ditu eta horiei eusten die, eta, halaber, bere komunitate sozialen eta kulturalen aniztasuna errespetatzen du eta ontzat ematen du.

3. Hiri-eremuek izan duten hazkundea, hiriek betetzen dituzten funtzioak eta hirietako biztanleek izaten dituzten zenbait arazo aztertzea; azterketa horretatik ikasitakoa Euskal Herriko eta munduko hirietara aplikatuta, irtenbide izan daitezkeen hipotesiak proposatzea eta zenbait adibide adieraztea.

- Landa-eremuetako eta hirietako biztanleen artean dauden alde nagusien ezaugarriak identifikatzen eta deskribatzen ditu ikasleak; horiek bere ingurune fisikoaren ezaugarriekin duten lotura hautematen du, eta azken urteetan herrialde garatuetan gertatu diren zenbait aldaketa deskribatzeko gai da.

- Euskal Herriko eta munduko hiri-populazio nagusiak identifikatzen eta kokatzen ditu mapa batean.
- Inguru hurbilean dituen hirien eta munduko hirien ezaugarriak identifikatzen eta deskribatzen ditu.
- Hirien bilakaera historikoa deskribatzen du, eta haiei buruzko planoak eta ezaugarriak alderatzen ditu.
- Hiriek betetzen dituzten funtzioak ikasi eta deskribatzen ditu, eta funtzioek hiri–egiturarekin eta biztanle-kopuruaren gorakadarekin duten lotura ezartzeko gai da.
- Grafikoak eta mapak erabilita, Euskal Herriko eta munduko hiri-sareak identifikatu eta deskribatzen ditu.
- Hirietan sortzen diren zenbait arazo identifikatu eta deskribatzen ditu, eta haiei aurre egiteko sortzen diren alternatibetan eta konponbideetan parte hartzen du.

4. Europa feudaleko oinarrizko ezaugarri sozialak, ekonomikoak, politikoak, erlijiozkoak, kulturalak eta artistikoak deskribatzea, gizarte-estamentuen funtzioak oinarri dituztela; Estatu modernoa sortu arteko bilakaera ikastea. Erromatar Inperioaren gainbeheraz geroztik Behe Erdi Arora arte Europan izandako zenbait lurralde-aldaketa espazioan eta denboran kokatzea.

-Gizarte feudaleko estamentuak ikasi ditu eta horiek deskribatzeko gai da, baita gizartean izan zuten eragina eta beren arteko lotura deskribatzeko ere.
- Landa-eremuetako eta hiri-eremuetako estamentuetako eguneroko bizimoduaren elementuak deskribatzeko gai da.
- Erdi Aroko eremu politiko ohikoenak deskribatzen ditu.

- Errenazimenduarekin batera Behe Erdi Aroan hirietan izandako aldaketa sozialak, ekonomikoak eta kulturalak identifikatzen ditu eta deskribatzeko gai da.
- Erdi Aroan izandako eta Europarekin zerikusia duten gertaera eta aldi historikoak islatzen dituzten ardatz kronologikoak egiten ditu eta mapa historikoak interpretatzen ditu.

5. Erdi Aroan Iberiar Penintsulan batera izan ziren zenbait unitate politiko denboran eta espazioan kokatzea eta beren arteko ezaugarriak bereiztea; euskal lurraldeen jatorri historikoari garrantzi berezia ematea; eta gure gizartean gaur egun oraindik ere bizirik irauten duten garai hartako kultura ondarearen zenbait adibide ematea.

- Kronologia-ardatzak eta -frisoak egiten ditu; horietan, Erdi Aroan Iberiar Penintsulan izan ziren erresuma kristauekin eta musulmanekin zerikusia duten gertaera eta aldi historikoak adierazten ditu, eta aldiberekotasun nabarmenak hautematen ditu.
- Erdi Aroko Iberiar Penintsulako erresuma kristauekin eta musulmanekin zerikusia duten mapa historikoak, zenbait garaitakoak, interpretatzen ditu.
- Erdi Aroko Iberiar Penintsulako erresuma kristauen eta musulmanen ezaugarri politikoak, ekonomikoak eta kulturalak ikasi eta deskribatzen ditu.
- Erdi Aroko Euskal Herrian izandako gertaera historiko nagusiak ikasi eta deskribatzen ditu, euskal lurraldeen sorrera eta horien bilakaera historikoa, bereziki; horiek ardatz eta friso kronologikoetan islatzen ditu, eta haiei buruzko historia-mapak interpretatzen ditu.
-Gertaera horiei berei buruzko agiri historikoak biltzen ditu eta kritikoki aztertzen ditu, baina zenbait interpretazio eta balorazio edo kontrajarrian daudenak emanda.
- Euskal Herriko egungo zenbait erakunderen hastapena Erdi Aroa izan zela identifikatzen eta balioesten du.
-Erdi Aroan kultura musulmanak, juduak eta kristauak egindako ekarpenak identifikatzen eta balioesten ditu, eta gure egungo kulturaren oinarrizko elementutzat hartzen ditu.

6. Estatu modernoa sortu arteko une garrantzitsuenak bereiztea; monarkia hispaniarraren eta inperio kolonial espainiarraren ezaugarri garrantzitsuenak nabarmentzea; eta horiek eta Euskal Herriarekin izan zituzten harremanak aztertzea; eta, testuinguru europarrean, euskal lurraldeek izandako garapena ere aztertzea.

- Aro Modernoko Euskal Herrian izandako gertaera historiko nagusiak ikasi eta deskribatzen ditu, baita antolaketa politikoaren eta foruen ezaugarri nagusiak ere; datu horiek ardatz eta friso kronologikoetan islatzen ditu; Espainiako eta Europako historien bilakaera alderatzen ditu, eta horiei buruzko historia-mapak interpretatzen ditu.
- Aro Modernoko monarkia hispaniarrarekin zerikusia duten gertaera eta aldi historikoak islatzen ditu ardatz eta friso kronologikoetan (Errege-erregina Katolikoak, Karlos V.aren inperio

europarra, Felipe II.aren inperio hispaniarra...), eta aldi horretan bertan Europan izandako beste gertaera batzuekin lotzen ditu.

- Aro Modernoko ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu, bilakaera ekonomikoari, antolaketa sozialari eta ideologia-erlijio krisiari buruzkoak.
- Aro Modernoko pentsamenduaren ideia eta ildo nagusiak ikasi ditu.
- Amerikaren aurkikuntzarekin eta kolonizazioarekin zerikusia duten historia-mapak interpretatzen ditu, baita Aro Modernoan munduan aurkitutako eta kolonizatutako beste zonalde batzuetakoak ere; mundua handitzearen kausak eta ondorio ekonomikoak eta politikoak aztertzen ditu; eta horiek egungo egoerekin duten lotura ezartzen du.

7. Erdi Aroko eta Aro Modernoko arte-estilo nagusien oinarrizko ezaugarriak identifikatzea eta haiek sortu ziren garaiari buruzko testuinguruaren berri ematea; ondoren, ikasitakoa arte-lan garrantzitsuenak eta esanguratsuenak aztertzeko erabiltzea.

- Arte erromanikoko, gotikoko, islamiarreko, errenazimenduko eta barrokoko arte-lanak identifikatzen ditu.
- Zenbait iturritan bilatzen du informazioa, zuzeneko behaketa eta sarea barne, eta estilo horietako adibideak hautematen ditu Euskal Herrian dauden lan jakinetan.
- Zenbait gidoi lagun dituela, Euskal Herrian, gainerako Iberiar Penintsulan eta Europan dauden zenbait arte-lan nagusi aztertzeko gai da (arkitektura, pintura, eskultura).
- Estilo erromanikoko, gotikoko, islamiarreko, errenazimenduko eta barrokoko arte-lanak alderatzen ditu, eta haien arteko berdintasunak eta desberdintasunak hautematen ditu.
- Iraganeko garaiak ezagutzeko, iturri horiek, dokumentu gisa, eskaintzen duten historia- eta arte-aberastasuna balioesten du; eta aberastasun hori zaintzearen eta babestearen aldeko jarrera erakusten du.

8. Bakarka eta taldean, irakaslea lagun dutela, gertaera edo gai baten deskripzio erraza egitea; horretarako, zenbait informazio-iturri erabiliko dituzte (behaketa, prentsa, bibliografia, webguneak, etab.); beharrezkoa duten informazioa bilduko dute eta eskema edo gidoi bat osatuko dute; ondoren, termino egokiak erabilita, gainerakoei behar bezala jakinaraziko diete lanaren emaitza.

- Landuko duen gaia definitzen du; galderak edo landuko dituen azpigaiak gidoi batean idazten ditu, eta, taldean edo bakarka, lan-plangintza osatzen du.
- Taldekako lanak antolatzen eta garatzen parte hartzen du; ekintzailea da eta besteek egiten dizkioten ekarpenak onartzen ditu; beren artean ezarritako arauak errespetatzen ditu; arduratsua da eta berak egindako lanak eta bere portaerak zein eskolako gainerako kideenak ebaluatzen ditu.
- Informazio-iturriak zuzen hautatzen ditu, gai jakin bat landu behar duenean (bibliografia, fitxategiak, estatistika-iturriak...),

eta, horietan, informazio egokia lortzen du.

- Bildutako informazioa erregistratzeko, euskarri egokiak hautatzen edo sortzen ditu.
- Laburpenak, eskemak, koadroak, grafikoak eta abar erabiltzen ditu informazioa berrantolatzeko, termino egokiak erabiltzen ditu eta egiten zaizkion galderei buruzko ondorioak azaltzen ditu.

9. Gertaera eta/edo prozesu historiko esanguratsuenen kausak eta ondorioak identifikatzea, beren artean dauden loturak zehaztea eta gertaera sozialak osatzen dituzten kausalitate-aniztasuna ikastea.

- Gertaera edo prozesu historikoak eta sozialak eragiten dituzten kausak sailkatzen ditu, eta bereizten ditu horietatik nahita eragindakoak.
- Gertaera edo prozesu esanguratsuren batean eragiten duten zenbait faktore identifikatzen ditu; faktoreen nolakotasuna zehazten du eta gertaerarekiko duen lotura zein den badaki.
- Gertaera historikoek izaten dituzten zenbait ondorio zehazteko gai da, eta epe laburreko eta epe luzeko ondorioak bereizten ditu.
- Zenbait gertaeraren edo elkarren segidan izandako egoeren arteko kausa-efektu harreman-kateak egiten ditu.

## HIRUGARREN MAILA

### EDUKIAK

1. eduki-multzoa. Eduki komunak.

Prozedurak:

- Arloaren ikaskuntzarako hizkuntza-trebetasunak aplikatu: testu idatzien eta ahozko testuen ulermena, berariazko hiztegiaren interpretazioa eta erabilera, ahoz eta idatziz behar bezala adieraztea, etab.
- Ekonomia, gizartea eta kulturari eta beste alderdi batzuei buruzko hipotesiak planteatu, formulatu eta egiaztatu.
- Eskala eta ezaugarri desberdinak dituzten irudiak, planoak eta mapak irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Hainbat motatako grafikoak irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak (barra-, lerro-grafikoak, piktogramak...), eta, datuak eskura ditugula, grafikoak egin.
- Izaera ekonomikoa, geografikoa, soziala eta kulturala duen informazioa, esplizitua zein inplizitua, bilatzeko, aztertzeko eta egiaztatzeko jarraibideak; horretarako, inguruko pasaia geografikoak edo irudiak ikusiko dira, eta ahozko iturriak, ikusizko dokumentuak, kartografia-dokumentuak, oinarrizko Sistema Geografikoko Sistemak, bibliografikoak eta estatistikoak erabiliko dira, informazio- eta komunikazio-teknologiek ematen dituztenak barne.

- Informazioa erregistratzeko eta tratatzeko teknikak, zenbait helburutarako.
- Zenbait motatako agiri ofizial irakurtzeko, interpretatzeko eta horiek betetzeko jarraibideak.
- Sarean herrialdeei buruzko informazio garrantzitsua bilatzeko jarraibideak.
- Lortutako informazioa behar bezala eta arrazoituta jakinarazi, ahoz zein idatziz.
- Ikerketa-lan monografikoak eta/edo laburpenak egiteko jarraibideak, horretarako zenbait informazio-iturri erabilita; horiek behar bezala aurkeztu, hainbat adierazpen-modu txandakatuz, informazio- eta komunikazio-teknologiek ematen dituzten aukerak ere barne.
- Ezaguera soziala osatzeko eta komunikatzeko prozesuak berezkoak dituen testu-tipologia egokiak erabiltzeko jarraibideak.
- Ingurunearen eta giza ekintzaren arteko elkarrekintzak aztertzeko jarraibideak, paisaia eratzean, gertaera geografiko jakinetan eta ingurumena degradatzean, besteak beste, islatzen direnak.
- Gaurkotasuna duen gairen bati buruzko eztabaidak egiteko, kasuak aztertzeko edo arazoei konponbidea emateko jarraibideak (esate baterako, ingurugiro-arazoei buruz, garapen bidean dauden herrialdeetako arazoei buruz); horretarako, besteak beste, komunikabideek eskaintzen dituzten informazio-iturriak erabiliko dira; gertaera bati buruz ematen den informazioa egiaztatu eta balioespen kritikoa egingo da; iritziak eta nork bere proposamenak arrazoitu eta gainerakoenak errespetatuko dira; eta, horretarako, termino egokiak erabiliko dira; halaber, arazoei aurre egiteko konponbideak eta alternatibak balioetsiko dira.

Jarrerak eta balioak:

- Baliabide naturalak balioetsi, gaur egungo gizadiaren eta etorkizuneko gizadiaren ondare komuna dela kontuan hartuta.
- Garapenaren banaketa-desberdintasunaren aurrean, jarrera kritikoa izan, eta pertsonen arteko eta munduko herrialdeen arteko desberdintasunak gaitzetsi.
- Demokraziaren printzipioak eta erakundeak errespetatu. Eskubide indibidualak eta kolektiboak hauteman.
- Hiritarren parte-hartzea erakunde publikoetan balioestea.
- Herrialde txiroenekiko elkartasun-jarrera izan. Gaur egungo pertsonei eta kolektiboei eragiten dieten desberdintasun-, bidegabekeria- eta diskriminazio-egoerak hauteman eta salatu.
- Lankidetza- eta elkartasun-politikak balioetsi.
- Emakumezkoak diskrimina ditzaketen egoeren eta/edo emakumezkoen aurkako indarkeriazko egoeren aurren jarrera kritikoa izan.
- Baliabideak agor daitezkeela, kontsumoak arrazionala izan behar duela eta ekonomia-jarduerak espazioan eragiten duen inpaktuaz ohartzea.

- Elkarrizketa eta lankidetza gatazkak konpontzeko era baketsutzat balioestea.
- Kontsumoa arrazionala izan dadin eta giza garapena ekitatiboa eta iraunkorra izan dadin laguntzearen aldeko jarrera, bakarka zein taldean.
- Parte-hartze aktiboa eta eraikitzailea, norberaren ahalegina, erantzukizuna eta elkartasuna talde-lanak edo bestelako eginkizun kolektiboak egitean.
- Nork bere hutsegiteak eta okerrak naturaltasunez onartu, eta horiek zuzentzearen aldeko jarrera izan

2. eduki-multzoa. Ekonomia-jarduera eta geografia-espazioa.

- Gizakien beharrak eta baliabide ekonomikoak. Ekonomia-jarduera. Merkatu-ekonomiari buruzko kontzeptuak, eragileak eta hartan parte hartzen duten oinarrizko erakundeak, eta horiek familia-unitateekin duten lotura. Eguneroko bizimoduarekin zerikusia duten arazoak eta ekonomia-kudeaketak hauteman eta horiei aurre egiteko konponbideak. Prozesu ekonomikoa: Zerbitzu-ondasunak ekoiztea, banatzea, trukatzea eta kontsumitzea.
- Lan-arloan izandako aldaketak. Ekonomia-antolaketa eta -araudia: merkatua eta finantza-erakundeak. Lan-arloaren antolaketa. Sindikatuak, enpresa-elkarteak. Munduan dauden ekonomia-sistemak eta beren arteko elkarrekintza. Esku-hartze publikoa ekonomian. Multinazionalen boterea.
- Europako, Espainiako eta Euskal Herriko ekonomia-jardueren joera orokorrak, globalizazioaren baitan.
- Nekazaritza-paisaiak. Horien guztien oinarrizko ezaugarriak. Landa-arloan izan diren aldaketak. Arrantza-jarduera eta itsasoaren erabilera.
- Ekoizpen-jarduera munduko industria-eremu nagusietan. Lehengaiak, energia eta industria-ondasunak ekoizten dituzten zonaldeak. Industria-kokapenerako faktoreak. Industria-motak.
- Zenbait zerbitzuren sailkapena eta horien azterketa, mundu osokoak zein tokian tokikoak. Egungo ekonomiako zerbitzu-aniztasuna eta haren garrantzia. Zerbitzuen, gizarte-ongizatearen eta ekonomiak hirugarren sektorerako duen joeraren arteko lotura.
- Euskal, espainiar eta europar lurraldeetako ekonomia-jardueraren zonalde eta gune nagusiak kokatu eta haien ezaugarriak zehaztu. Ekonomia-jardueraren ondorioz sortzen diren geografia-paisaiak behatu, identifikatu eta aztertu. Eskualdeen arteko desorekak.

3. eduki-multzoa. Euskal Herriko ekonomia-jarduerak eta haiek ingurumenean nola eragiten duten.

- Euskal Herriko ekonomia-sektoreen ezaugarri nagusiak. Lehen eta bigarren sektoreekin zerikusia duten jarduera tradizionalak. Nekazaritza-, arrantza- eta industria-espazioak eta haietako bakoitzaren jarduerak. Gaur egungo egoera, gertatu berri diren aldaketak eta etorkizuna. Europan integratzeak lehen eta bigarren

sektorean eragindako ondorioak. Kooperatibismoa: jatorria eta bilakaera.

- Zerbitzuen sektorea: hirugarren sektoreko jarduera-aniztasuna eta haiek nola garatu diren. Lurraldea antolatzeko zer funtzio betetzen duten. Garraioak eta komunikabideak. Arku Atlantikoko ekonomia-eremuko kide izatea.

4. eduki-multzoa. Antolaketa politikoa eta geografia-espazioa.

-Politika eta lurraldea antolatzeko zenbait modu. Estatua, gizartea antolatzeko egitura politiko ohikoena. Autogobernurako beste modu batzuk. Lehen zeuden mugen eta egungo bizikidetzarako eremuen arteko bereizketa. Erregimen politiko-motak. Sistema demokratikoak eta sistema autoritarioak. Erregimen demokratikoen oinarrizko printzipioak eta erakundeak. Botere-banaketa, legeekiko eta arauekiko errespetua. Hiritarren parte-hartzea zenbait eskalatako erakunde demokratikoetan. Konstituzioa eta autonomia-estatutuak.

-Euskal lurraldeetako antolaketa eta funtzionamendu politikoaren oinarrizko elementuak, zenbait mailatan: udala, lurralde historikoak, autonomiak, eta Estatu batean baino gehiagotan kokatuta egotea (geografia- eta administrazio-desberdintasunak). Frantziako eta Espainiako antolaketa politikoa eta administratiboa. Frantziako eskualdeak, departamenduak eta Komunak. Espainiako autonomia-erkidegoak, probintziak, udalerriak eta beste toki-entitate batzuk.

-Europako Batasuneko antolaketa politikoaren eta administratiboaren oinarrizko elementuak. Helburuak. Europako erakundeek nola funtzionatzen duten.

-Mapa politikoak: Euskal Herria, Espainia, Europa eta mundua.

-Munduko eremu geopolitiko, ekonomiko eta kultural handien kokapena eta haien ezaugarriak.

5. eduki-multzoa. Egun munduan gertatzen ari diren aldaketak eta desorekak.

- Merkatuen mundializazioa. Globalizazio ekonomikoa eta garapen iraunkorra. Interdependentzia eta globalizazioa. Lanaren nazioarteko banaketa: desabantailak herrialde garatuentzat eta azpigaratuentzat. Industriaren deslokalizazioa eta merkataritza-modu berriak. Nazioarteko ekonomia antolatzeko moduek eta ekonomia-funtzionamenduak eragiten dituzten ondorioak: garapen ekonomikoaren mailak eta truke-desberdintasunak.

- Giza garapenaren desberdintasunak. Munduko herrialdeen arteko desberdintasunak. Adierazle sozioekonomikoetan oinarritutako aldeak: Nazio Produktu Gordin (NPG), Per Capita Errenta, Giza Garapenaren Indizea (GGI). Herrialde txiroen kanpo-zorra: ondorioak haien ekonomian. Lankidetza-politikak.

- Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Iraunkortasuna bultzatzeko neurriak eta politikak. Natura-baliabideen eskasia. Energia berriztagarriek eskaintzen dituzten aukerak eta baldintzak. Nazioarteko hitzarmenak ingurumena babesteko. Kyotoko protokoloa.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. Ekonomia-eragile eta -erakunde nagusiak identifikatzea, eta ekonomian haiek betetzen dituzten funtzioak zein diren ikastea, kontuan hartuta hori gero eta interdependenteagoa dela; ondoren, ikasitakoa inguru hurbileko zenbait errealitate ekonomiko aztertzeko eta balioesteko erabiltzea.

- Ekonomiari buruzko oinarrizko kontzeptuak identifikatzen ditu, nazioarteko ekonomiaren oinarrizko alderdiak interpretatzeko.
- Ekonomiaren oinarrizko funtzionamendua deskribatzen du, ekonomia-eragileek eta -erakundeek izaten duten zeregina abiapuntu hartuta.
- Baditu ikasleei berei edo familiei zuzenean eragiten dieten zenbait gertaera edo arazo ekonomiko aztertzeko oinarrizko giltzarriak (inflazioa, bizimoduaren kostua, lan-merkatua, langabezia, enpleguaren ezegonkortasuna, emakumezkoen enplegua, kontsumoa, etab.).
- Eguneroko bizimoduan ohikoak diren kudeaketak egiteko gai da (askotan erabiltzen diren agirietako oinarrizko informazioa ulertzen du; esaterako, aurrekontuak, fakturak, errenta-aitorpena, zenbait ordainagiri...).
- Egungo gizarteetako ekonomia-jarduerak deskribatzen ditu, ekonomia-mapetan, -grafikoetan eta -estatistiketan bildutako datuak erabilita.
- Lurraldeen artean ekonomia-sektoreen banaketan desorekak daudela adierazten du, grafikoak (ziklogramak, barra- eta lerro-diagramak...) eta gaikako mapak erabiliz.
- Egungo ekonomia globalizatuaren funtsezko elementuak identifikatzen ditu.
- Lurralde-eremuetako harreman ekonomikoei eragiten dieten hainbat faktore identifikatzen eta aztertzen ditu, horretarako dokumentazio askotarikotik abiatuta.
- Ekonomia-jardueren kokapenari buruzko benetako edo fikziozko proposamenen bat aztertzeko eta ebaluatzeko gai da.

2. Nekazaritza ustiatzeko munduan dauden sistema nagusien ezaugarriak lantzea; sistema horien zenbait adibide esanguratsu kokatzea; eta euskal, espainiar eta europar nekazaritzako egungo zenbait arazo aztertzea.

- Nekazaritza-sistema nagusien ezaugarriak identifikatzen ditu, baita nekazaritzan aplikatzen diren industria-teknika berriak ere.
- Landa-eremuen banaketa adierazten du, gaikako mapak erabilita.
- Euskal Herriko eta Espainiako zenbait nekazaritza-eremu aurkitu eta identifikatzen ditu.
- Lehen sektorerako Europar Batasunak erabakitako politikak gaur egun eragiten dituen ondorioak ateratzeko gai da, zenbait informazio-iturri erabilita (batik bat, komunikabideak eta sarea).

- Nekazaritzak gaur egun dituen arazo esanguratsuek eragindako egoera jakinak aztertzeko gai da, eta, bereziki, merkatu europarraren esparruan euskal eta espainiar nekazaritzaren egoera; horrezaz gain, irtenbideak izan daitezkeenak ematen ditu.
- Lehen sektorearekin zerikusia duten ekonomia-jardueren kokapenari buruzko benetako edo fikziozko proposamenen bat aztertzeko eta balioesteko gai da.

3. Industria-jardueretan, -eremuetan eta -paisaietan gertatzen ari diren aldaketak deskribatzea; Euskal Herriko, Espainiako eta munduko ekoizpengune nagusiak non dauden jakitea; eta, azkenik, sektorearen egungo errealitatea aztertzea, industriaren deslokalizazioa eta ekonomiaren globalizazioa oinarri hartuta.

- Industria-espazio nagusiak eta lehengaiak eta energia-iturriak ekoizten dituzten gune garrantzitsuenak Euskal Herrian, Espainian eta munduan kokatzeko gai da.
- Industria-mota nagusiak eta haien ezaugarriak badakizki.
- Euskal Herriko egungo ekoizpen-moduak, industria-paisaia berriak eta industriaren etorkizuna identifikatzen ditu.
- Energia eta industria-ondasun nagusiak ekoizten dituzten zonaldeak kokatzen badaki.
- Produktuak lortu, ekoitzi eta banatzen direnetik kontsumitu bitarteko ekonomia-prozesuei buruzko hausnarketa egiteko gai da, eta ekoizpenaren eta kontsumoaren artean sortzen diren harreman-korronteak identifikatzen ditu.
- Bigarren sektorearekin zerikusia duten ekonomia-jardueren kokapenari buruzko benetako edo fikziozko proposamenen bat aztertzeko eta ebaluatzeko gai da.

4. Hirugarren sektoreko jardueretan oro har gertatutako aldaketa eta garapena identifikatzea, eta, bereziki, Euskal Herriko jardueretakoak; jarduera horien garapenaren ondorioz gertatzen ari diren aldaketak aztertzea, harreman ekonomikoetakoak zein sozialetakoak.

- Jarduera ekonomikoei buruzko informazioa lortzeko, mota guztietako bitartekoak erabili ditu.
- Grafikoen, diagramen eta, oro har, ikusizko dokumentuen bidez lortutako informazioa zuzena eta objektiboa den ebaluatzen eta egiaztatzen du.
- Badaki egungo ekonomian zerbitzuen sektoreko jarduerak etengabe garatzen eta nagusitzen ari direla, baita merkataritzaguneak eta turismoguneak ugaritzen ari direla ere.
- Europako, Espainiako eta Euskal Herriko garraio- eta komunikabide-ardatz nagusiak kokatzen ditu
- Euskal Herriko errepide- eta garraio-sareek garapen ekonomikoarekin duten lotura ezartzen du, eta, horretarako, ingurumena iraunarazteko irizpideak aplikatzen ditu.
- Hirugarren sektorearen garapena eta hirietako biztanle-kopuruaren gorakada eta hirien beren hazkundea lotzen ditu.

- Hirugarren sektorearekin zerikusia duten ekonomia-jardueren kokapenari buruzko benetako edo fikziozko proposamenen bat analizatzeko eta ebaluatzeko gai da.

5. Erakunde demokratikoen ezaugarriak, oinarrizko printzipioak, horiek nola funtzionatzen duten, nola antolatzen diren eta zer jatorria duten ikastea eta ulertzea; erakunde demokratikoek pertsonen arteko elkarbizitza hobetzeko egin ditzaketen ekarpenak aztertzea.

- Inguru hurbilean dituen partaidetza sozialerako erakunde nagusiak ezagutzen ditu.
- Ikasleak parte hartzen duen maila desberdineko elkarte demokratikoek dituzten balioak hautematen ditu (eskola, udalerria, lurralde historikoa...).
- Erakundeek betetzen dituzten funtzioak bereizten ditu eta elkarbizitza demokratikoa posible izateko modutzat hartzen ditu, eta, gainera, desadostasun politikoei aurre egiteko tresna egokitzat hartzen ditu.
- Guri eragiten diguten erakundeak nola osatzen diren eta haien funtzionamendua identifikatzen du.
- Parte hartzezko talde edo erakunderen bat itxuraz demokratikoa ez bada, haren funtzionamenduaren alderdiekiko jarrera kritikoa erakusten du. Haiek hobetze aldera proposamenak egiten ditu eta ekimena duela erakusten du.
- Hiritarren parte-hartzerako hainbat euskal arlotako erakundeak errespetatzen ditu, baita Espainiakoak eta Europakoak ere.
- Zuzenbide-estatuetako elkarbizitzarako arauak onartzen ditu eta estatu horiek zuzentzen dituzten oinarrizko printzipioak ezagutzen ditu.
- Badaki zein diren hiritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak, eta ezaguera horiek eta ordezkatze-sistemaren printzipioak eguneroko bizimoduan aplikatzen ditu.
- Elkarbizitzarako arauetara edo legeetara jotzen du, gatazkaren bati konponbidea emateko edo zenbait gizarte-gatazkari aurre egiteko, neurriak hartzeko formulatzat hartuta.
- Erakundeetan parte-hartze demokratikoa areagotzeko egiten diren ekarpenak azpimarratzen ditu.

6. Euskal Herriko, Espainiako eta Europako mapetan banaketa politiko-administratibo nagusiak identifikatzea eta kokatzea; Euskal Herriko lurralde-antolaketa hautematea, Estatu espainiarraren eta frantsesaren antolaketa politiko-administratiboaren barnean, baita Europar Batasuneko kide dela hautematea ere.

- Honako hauek kokatzen ditu, nor bere mapa politikoan: Euskal Herria, Espainiako autonomia-erkidegoak eta hura osatzen duten lurraldeak, Europako estatuak.
- Euskal Herriko lurraldeak eta Estatu espainiarra osatzen duten antolaketa politiko-administratiboaren oinarrizko ezaugarriak identifikatzen ditu.

- Euskal Herriko lurralde-antolamendua eta Estatu espainiarreko lurralde-antolamendua arautzen duten erakundeen funtzioak identifikatzen eta deskribatzen ditu, baita erakunde horiek Europako Batasunean nola hartzen duten parte ere.
- Europar Batasunaren antolaketa politikoaren azterketa kritikoa egiten du, sorrera zein bilakaera historikoarena.

7-Munduko herrialde nagusiak eta eremu geoekonomiko eta kultura-eremu nagusiak identifikatu eta kokatu mapetan.

-Munduko eremu nagusiak eta zenbait erakunde geopolitiko eta kultura-erakunde deskribatzen dituzten mapa politikoak egiten ditu.
-Ikasitako eskualde-multzo guztiak osatzen dituzten herrialdeak bereizten ditu munduko mapa politiko batean; mundu-ordena berria osatzen duten eskualdeko eta nazioarteko erakundeak koadro batean nabarmentzen ditu, eta, horretarako, izen eta sigla egokiak erabiltzen ditu.

8. Euskal Herriko eta Espainiako espazio geografikoen ezaugarri komunak eta desberdinak deskribatzea; ekonomia-jardueren gune nagusiek eta komunikazio-ardatz handiek espazio-antolaketan nola eragiten duten azaltzea; eta gune eta ardatz handi horien kokapenak eskualdeen arteko aldeak eragiten dituela azaltzea.

- Euskal eta espainiar lurraldeetan dauden ekonomia-jarduera nagusien eta komunikabide-ardatz handien ezaugarri fisikoak identifikatzen eta deskribatzen ditu.
- Lurraldeen artean dauden alde eta elkarrekintza nagusiak nabarmentzen ditu.
- Euskal Herriko gune ekonomiko garrantzitsuenak kokatzen ditu, baita Akitania eta Espainiakoak ere, eta, bestalde, haiek eta komunikabide-sare nagusiak lotzen ditu.

- Faktore fisikoa, ekonomikoa, demografikoa, kulturala, politikoa... batzeak eskualdeen eta lurralde-eremuen arteko desberdintasunak eragiten dituela azaltzen du.
- Euskal lurraldeei buruzko datuak bilatzen ditu zenbait iturritan, eta lortutako datuak koadro batean antolatzen ditu, berdintasunak eta desberdintasunak ikusteko.

9. Zenbait herrialde eta lurraldetako ezaugarriak aztertzea, adierazle sozioekonomikoak kontuan hartuta; lurraldeen artean baliabideen banaketan desorekak daudela jakinaraztea; desoreka horrek eragiten dituen zenbait ondorio azaltzea eta desberdintasunarekiko sentsibilitate-jarrera adieraztea.
- Lurralde-eremuetan dauden hainbat estatistika-institutuk jakitera ematen duten estatistika-informazioa kontsultatzen du: Eustat, EIN, Eurostat, Nazio Batuen Erakundea (NBE), Giza Garapenaren Indizea (GGI), Per Capita Errenta, etab.
- Zenbakizko datuek (taulek, grafikoek, estatistikek, etab.) ematen duten informazio sozioekonomikoa biltzen eta ulertzen du,

eta, horien bidez, munduko zenbait geografia-eremu deskribatzen du; herrialdeen arteko desberdintasun ekonomikoak ezartzen ditu.

- Lortzen dituen datuak interpretatzen ditu eta datu horietatik ateratako zenbait ondorio behar bezala argudiatuta azaltzen ditu.
- Zenbait eremuren eta herrialderen arteko garapen-mailaren aldeak nabarmen erakusten dituzten egoerak identifikatzeko erabiltzen du lortutako informazioa.
- Euskal Herriko lurraldeen artean eta munduan dauden desorekak eta desberdintasunak nabarmen erakusten dituzten zenbait adibide kokatzen, identifikatzen eta aztertzen ditu.

10. IRIZPIDEA ALDATU EGIN DA, AURREKOA BIGARREN MAILARA PASA BAITA. Gaur egun gertatzen diren migrazio-joerak adierazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Espainiako egoera aztertzea.

- Herrialde garatuak eta garapen bidean dauden herrialdeak alderatzeko, taldean lan bat osatzea. Lan horretan, datu fisikoak eta sozioekonomikoak deskribatuko dira, zenbait informazio-iturri erabilita (agiri idatziak, estatistikak, internet...); herrialdeen arteko desberdintasunen kausak azaltzen saiatu, eta kausa horiek munduan gertatzen ari den globalizazio-prozesuarekin eta integrazio ekonomikoarekin lotuko dira; ondorioak egiaztatuko dira, herrialde garatuetan zein garapen bidean dauden herrialdeetan; eta oreka lortu ahal izateko aukerak adieraziko dira.
- Adierazle ekonomiko, demografiko eta kulturalen arteko korrelazio nabarmenak ezartzen ditu, eta azalpenezko hipotesiak egiten saiatzen da.
- Egiaztatu dituen desberdintasun horiek eragindako zenbait ondorio ateratzeko —bereziki, eragiten duten dependentzia-harremana—, txostenak, konparazio-koadroak, taulak edo mapak egiten ditu eta, bestalde, emandako iritzietan, desberdintasun horien aurka agertzen da.
- Egungo zenbait gatazka sozioekonomiko identifikatzen ditu, eta haiek eragin dituzten kausei eta irtenbide izan daitezkeenei buruzko hipotesiak formulatzen ditu, interdependentzia ekonomikoa kontuan hartuta.
- Ondorioak behar bezala antolatuta eta ulertzeko moduan jakinarazten ditu, eta, horretarako, baliabide digitalak erabiltzen ditu.

11. Ekonomia-jarduerek eta portaera indibidualek edo kolektiboek ingurumenean eragiten dituzten ondorioak erakusten dituen kasu jakinen bat, ikasleek gertuen duten kasuren bat, deskribatzea; garapen iraunkorra kontuan hartzen duten jarduerak eta ingurumenari kalteak eragiten dizkioten jarduerak bereiztea; ingurumena zaintzeko ekimenak bultzatze aldera modu aktiboan eta arduratsuan inplikatzea.

- Ingurumena babesteko eta errespetatzeko jarrerak erakusten ditu, eta giza jarduerek eragiten dituzten ingurumen-arazoei buruz taldean hausnartzen du.
- Ingurumena babesteko inguruan dituen erakundeen eta kolektiboen

proposamenak eta politikak identifikatzen ditu.

- Ingurumena errespetatua izan dadin laguntzeko interesa duela erakusten du, eta ingurumenarekiko kalteak mugatze aldera ekintza-proposamenak ematen ditu aditzera eta lantzen ditu, bere ikaskideekin batera.
- Baliabide naturalak gizartearentzat garrantzizkotzat joten ditu, eta ulertzen du baliabideak modu arrazionalean ustiatu behar direla.
- Inguruan duen ingurumenaren degradazio-arazoak aztertzen ditu, eta ingurumena babestearen eta zaintzearen aldeko jarrera du. Euskal Herrian naturari kaltea eragiten dioten zenbait arazo jakinez ohartu da, baita haien kausez ere.
- Txartzat hartutako egoera horiei aurre egiteko moduak irudikatzen ditu, baita horiek hobetzeko laguntza-moduak ere.
- Iturri bat baino gehiago erabiltzen du informazioa biltzeko; gaur egun oro har dauden ingurumen-arazo nagusiak deskribatzen ditu; arazoen eta haien ustezko kausen arteko lotura ezartzen du; eta zenbait giza portaerek, indibidualek eta kolektiboek naturan eragin ditzaketen kalteen ondorioak aurreikusten ditu.

12. Lan errazak edo ahozko azalpenak, bakarka zein taldean, planifikatzea eta gauzatzea, zenbait iturri erabilita (grafikoak, krokisak, gaikako mapak, datu-baseak, irudiak, testu idatziak, internet); ateratako ondorioak zuzen antolatuta, arrazoituta eta modu ulergarrian jakinaraztea, horretarako informazio- eta komunikabide-teknologiek ematen dituzten aukerak erabilita.

- Zuzen erabiltzen, irakurtzen eta interpretatzen ditu grafikoak, gaikako mapak, kartografia, etab.
- Aztertu beharreko gaiei buruzko hipotesiak eta galderak planteatzen ditu.
- Behar duen informazioa lortzen du eta erregistratzen du; informazio-iturri bat baino gehiago erabiltzen du horretarako, eta, hala badagokio, landa-lanak ere bai.
- Sistematikoki eta zorrotz hautatzen ditu informazio-iturriak, gai jakin bat landu behar duenean.
- Euskarri egokiak hautatzen edo sortzen ditu, bildutako informazioa erregistratzeko.
- Behar bezala erabiltzen ditu estatistika-informazioa aurkitzeko tresnak (datu-baseak) sarean (bilatzaile orokorrak eta espezializatuak).
- Ondorioak jakinarazteko informatikak ematen dituen aukerak erabiltzen ditu; esate baterako, testu-prozesadorea edo aurkezpenak egiteko programak.
- Testu-mota egokiena aukeratzen du, lortu duen informazioa eta/edo atera dituen ondorioak behar bezala jakinarazteko.

13. Txostenak egitea eta eztabaidetan parte hartzea, honako arazo hauei buruz: gaur egun munduan eguneroko bizimoduan dauden arazoei buruz eta haien ustezko jatorri historiko eta sozialei buruz (bazterketa-egoerak, arazo ekonomikoak, desoreka sozioekonomikoak, sozialak, indarkeriaren kasuak, emakumezkoen aurkako indarkeria,

gaztediaren arazoak, etab); horretarako, komunikabideetatik edo beste iturri batzuetatik lortutako informazioa zorrotz erabiltzea, eta ematen diren iritzietan tolerantzia- eta elkartasun-jarrerak izatea.

-Aztertutako desorekak arintze aldera irtenbideak azaltzen ditu, jarrera kritikoa eta tolerantziazkoa duela.

-Gaur egungo arazoen aurrean, sentsibilitate-jarrera du; hala nola, honako arazo hauen aurrean: egoera kaskarrean bizi diren kolektiboak, diskriminazio-egoerak, ingurumen-hondamendia, lan-merkatuaren egoera, kontsumo-joerak, indarkeria eta genero-indarkeria; zorrotz lantzen ditu eta haiekiko elkartasun-jarrera du.

- Behar bezala erabiltzen ditu ahozko hizkuntza eta argudioak eztabaidetan, eta elkarrizketetarako eta taldean hizketan aritzeko dauden arauak onartzen ditu.

- Ikuspuntu bat baino gehiago izateak balio handia duela jakitun da, besteen iritzien aurrean enpatia-jarrera erakusten du, eta eztabaidetan bereak bezalakoak ez diren ideiak eta interesak naturaltasunez hartzen ditu.

- Egoerak proposatzen direnean, benetakoak zein asmatutakoak, aldeko edo aurkako iritziak arrazoitzen ditu.

- Aurka duen aldeak, gutxienez, arrazoi pixka bat izan dezakeela hartzen du abiapuntutzat.

- Bere ikuspuntuak defendatzen ditu, gainerakoen azalpenak arretaz entzuten ditu, eta, zenbaitetan, amore emateko eta akordioetara iristeko gai da.

- Zerbait jakin nahi duenean, argi eta garbi egiten du galdera edo galderak, eta gaiarekin zerikusia duten ondorioak ateratzen ditu.

- Lortutako datuak eta ondo egituratutako eskemak erabilita idazten ditu egin beharreko lanak.

- Eguneroko bizimoduko arazoei buruzko grafikoak, diagramak, eskemak, kontzeptu-mapak, txostenak eta abar biltzen, interpretatzen eta egiten ditu.

- Egungo gizartean dauden arazoei buruzko eztabaidak, rol-jokoak eta simulazioak egiten du.

- Gizartearen arlo guztietan eta ekoizpen-prozesuaren arlo guztietan emakumezkoek ekonomikoki eta sozialki parte hartzea balioesten du, eta diskriminazio-mota guztiak gaitzesten ditu.

- Testu-mota egokiena aukeratzen du, lortu duen informazioa eta/edo atera dituen ondorioak behar bezala jakinarazteko.

## LAUGARREN MAILA

### EDUKIAK

1. eduki-multzoa. Eduki komunak.

Prozedurak

- Arloaren ikaskuntzarako hizkuntza-trebetasunak aplikatu: testu idatzien eta ahozko testuen ulermena, berariazko hiztegiaren interpretazioa eta erabilera, ahoz eta idatziz behar bezala adieraztea, etab.
- Historiari, gizarteari eta kulturari eta beste alderdi batzuei buruzko hipotesien planteamendua egin, formulatu eta egiaztatu.
- Gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuenak denboran eta espazioan kokatu.
- Aldaketa-prozesuei erreparatzeko jarraibideak. Denborazko segidak, denbora-lerroak eta friso historikoak irudikatzeko teknikak; eta gizarte historikoen eta gaur egungoen arteko desberdintasunak eta berdintasunak identifikatzeko, aztertzeko eta alderatzeko teknikak.
- Irudiak aztertzeko jarraibideak, agiri historiko gisa eta errealitatea interpretatzeko modu gisa. Zenbait film dokumental eta/edo fikziozko ikusi, eta haiek iturri historikotzat balioetsi.
- Aldaketa historikoen prozesuetan parte hartzen duten faktoreak identifikatzeko jarraibideak; kausak eta ondorioak bereizi.
- Historia-azalpenen kausalitate-aniztasuna aztertu.
- Prozesu historikoetan parte hartzen duten osagai ekonomikoak, sozialak, politikoak eta kulturalak identifikatu, eta haien artean dauden loturak ulertu.
- Dokumentu-iturrietan informazioa bilatzeko, hautatzeko eta lortzeko jarraibideak; objektibotasun- eta egokitasun-irizpideak erabilita informazioa lortu; gertaerak eta iritziak bereizi; lehen mailako iturriak eta bigarren mailakoak bereizi. Gertaera edo egoera berari buruzko informazio kontrajarriak eta/edo osagarriak egiaztatu. Garrantzi handia duten historia-testuak aztertu eta landu.
- Ikerketa-lanak eta/edo laburpenak egiteko jarraibideak, horretarako zenbait informazio-iturri erabilita; horien berri behar bezala eman, hainbat adierazpen-modu txandakatuz, informazio-teknologiek eta ikus-entzunezko baliabideek ematen dituzten aukerak ere barne.
- Gaur egungo gertaera edo egoera garrantzitsuak aztertu, aurrekari historikoak eta egoera horiek eragin dituzten baldintzak ikertuta, eta, horretarako, zenbait komunikabide erabili, eta, hala badagokio, elkarrizketak eta/edo inkestak ere bai.
- Iraganeko bizimoduaren alderdien bilaketa, lehen mailako iturrietatik —ahozko iturriek eta artxiboek lehentasuna dutela— eta bigarren mailakoetatik lortutako informazioa erabilita.
- Gaur egungo estilo edo artista garrantzitsu nagusienen oinarrizko elementuak hautemateko jarraibideak, nor bere une historikoaren testuinguruan kokatu eta arte-lan esanguratsuenak interpretatu. Ezaguera hori aplikatu zenbait arte-lan garrantzitsu aztertzeko.
- Garai eta kultura desberdinetako zenbait arte-lanen konparazio-analisiak egiteko eta beren arteko berdintasunak eta desberdintasunak hautemateko jarraibideak.

Jarrerak eta balioak:

- Gizarte guztietako arte- eta kultura-adierazpenak balioetsi eta errespetatu.
- Bidezkoak ez diren egoerekiko ikuspegi kritikoa izan, eta gatazkei aurre egiteko elkarrizketa eta bakea balioetsi.
- Etorkizuna eraikitzeko, memoria historikoaren funtzioa balioetsi.
- Kultura-ondarea eta gure ondare historiko eta artistikoa balioetsi, errespetatu eta haiekin gozatu, eta hura zaintzearen eta defendatzearen aldeko jarrera izan.
- Iraganeko errealitate soziala nolakoa izan zen jakiteko interesa eta ikusmina, baita gaur egungo gure gizartearekin duten zerikusia jakiteko ere; gertaera historikoen aurrean jarrera kritikoa izan.
- Giza eskubideak balioetsi eta bidegabekeria, diskriminazio, menderatze eta genozidio guztiak gaitzetsi.
- Gizonezkoek eta emakumezkoek, bakarka eta taldean, Historian izan duten zeregina balioetsi.
- Parte-hartze aktiboa eta eraikitzailea, norberaren ahalegina, erantzukizuna eta elkartasuna talde-lanak edo bestelako eginkizun kolektiboak egitean.
- Nork bere hutsegiteak eta okerrak naturaltasunez onartu, eta horiek zuzentzearen aldeko jarrera izan

2. eduki-multzoa. Egungo gizartearen oinarri historikoak.

- Antzinako Erregimenaren eta aro garaikidearen arteko aldaketa eta jarraitutasuna. Antzinako Erregimeneko Europako aldaketa politikoak eta sozioekonomikoak. Estatu absolutua Frantzian eta borboitarren Espainia. Borboitarren erreforma Espainian eta Euskal Herrian. Foralismoaren krisialdia. Ondorioak euskal lurraldeetan. Matxinadak. Aldaketak Euskal Herriko gizartean eta ekonomian. Demografia-gorabeherak. Krisi ekonomikoa. Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarra. Ilustrazioa. Ilustrazioa Euskal Herrian: Bergarako Errege Mintegia, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea eta Elhuyar anaiak.
- Antzinako Erregimenaren krisialdia. Aurrekariak: Erreformismo ilustratua. AEBren independentzia, Frantziako Iraultzaren aitzindari gisa. Errepublika demokratikoa eta Konstituzioa. Frantziako Iraultza. Frantziako Iraultzaren ondorioak Euskal Herrian. Napoleonen Europa eta absolutismora itzultzeko saiakera. Iraultza burgesak XIX. mendeko Europan. Mugimendu liberalak eta nazionalak.
- Espainiako eta Euskal Herriko bilakaera historikoa XIX. mendean, eta hura balioestea nazioarteko testuingurua kontuan hartuta. Estatu liberalaren eraketa XIX. mendeko Espainian. Tradizionalismoa eta liberalismoa aurrez aurre. Karlismoa eta liberalismoa aurrez aurre euskal lurraldeetan. Foruen auzia Euskal Herrian: Liberalen garaipena eta foruen abolizioa. Euskal nazionalismoaren sorrera.
- Industria-iraultzaren kausak eta hura nola ezarri zen Europan. Industria-iraultzak eragindako aldaketa sozioekonomikoak: Demografiaren igoera. Emigrazioa. Industria-iraultzaren aurrekariak eta ezaugarriak Euskal Herrian eta Espainian. Ondorio politikoak, sozialak eta kulturalak: migrazio-fluxuak. Gizarte kulturuanitza.

Langile-mugimenduaren sorrera. Sozialismoa. Bizimoduak hiri industrialean.

- Europaren botere politikoa eta ekonomikoa XIX. mendearen bigarren erdialdean. Inperialismoa. Europar inperialismoaren faktoreak, eta kolonizazioaren ondorioak nazioarteko harremanetan eta herrialde kolonizatuetan.

3. eduki-multzoa: XX. MENDEKO GATAZKA HANDIAK

- XX. mendearen lehen erdialdeko aldaketa eta gatazka handiak. Gerra eta iraultza soziala. Lehen mundu-gerra eta haren ondorioak Euskal Herrian. Europaren berreraikuntza eta Errusiako iraultza. Totalitarismo-kopurua handitzen Europan. Bigarren mundu-gerra eta haren ondorioak.
- Aldaketak Espainian XX. mendean: Estatu liberalaren krisialdia; Espainiako II. Errepublika. Euskal Herriko egoera: Euskal estutuaren garapen-oztopoak. Gerra zibila. Gerra zibila Euskal Herrian. Frankismoa. Francoren diktadura Euskal Herrian.

4. eduki-multzoa. Mundua gaur egun.

- Munduko antolamendu politikoa eta ekonomikoa XX. mendearen bigarren erdialdean: botere-blokeak eta eredu sozioekonomikoak. Deskolonizazio-prozesua eta haren ondorioak. Inperialismoaren eragina egungo munduaren eraketan. Gerra-gatazken ondorengo berreraikuntza politikoa eta ekonomikoa. Aldaketak eta tentsioak nazioarteko harremanetan: bloke-sistema. Mundu bipolarra eta gerra hotza. Gerraosteko eredu sozioekonomikoen ezaugarriak. Nazioarteko erakundeen eragina munduko politikaren arloan. Nazio Batuen Erakundea: aurrekariak, sorrera, helburuak, antolaketa eta ezaugarriak: kide iraunkorrak eta beto-eskubidea. NBEren mende dauden erakunde espezializatuak. Nazioarteko beste erakunde batzuk: Amerikako Estatuen Erakundea (AEE), Arabiar Estatuen Liga, etab.
- Trantsizio politikoa eta Estatu demokratikoa eratzea Espainian. Aldaketa historikoetan gizonezkoek eta emakumezkoek, bakarka eta taldean, izan duten zereginaren azterketa. Lehendabiziko gobernu demokratikoak. 1978. urteko Konstituzio espainiarra, gobernu autonomikoak eta autonomia-estatutuak.
- Europako Batasunaren sortze-prozesua. Espainia eta Europako Batasuna gaur. Europako Batasuna: Nola sortu eta bilakatu den, itunak eta kide berriak. Xedeak, lorpenak eta zailtasunak. Europako Batasuna eta haren eragina ekonomiaren arloan. Espainiari eta Euskal Herriari integratzeak ekarri dizkien efektu positiboak. Euskal lurraldeak Europako Batasunaren esparruan. Europako Batasuna: harreman-eredu berria. Europar hiritartasuna.
- Globalizazioa eta boteregune berriak. Globalizazioaren ondorioak eta botere-zentro berrien kokapena. AEBren eragina. Europaren eragina eta Ekialdeko Europako herrialdeen integrazioa. Asiako hego-ekialdean garatzeko bidean dauden herrialdeak. Txina.
- Tentsioguneak eta aukerak munduan gaur egun. Kausen arteko lotura eta faktore historikoak. Herrialdeen, nazioen, estatuen eta mugen egitura politikoetan gertatutako aldaketak XX. eta XXI. mendeetan. Europan eta munduan estatu berriak sortzea. Zenbait

arrazoik eragindako gatazkak: arrazismoak, baliabide-ustiapenak, ñabardura kulturalek edo erlijiosoek, lurralde-arazoek, etab. Bakea lortzeko arazoak eta aukerak.

5. eduki-multzoa. Artea, kultura eta zientzia gaur egun. Komunikabideak

- Aro garaikideko artea eta kultura Euskal Herrian eta Espainian.
- Arte-hizkuntza berriak: arte plastikoetatik ikusmen-arteetara.
- Arte-korronte garaikideak: arte plastikoak XX. mendean eta XXI. mendearen hasieran.
- XX. mendeko eta XXI. mendearen hasierako artea eta kultura Euskal Herrian.
- Komunikabideak eta haien eragina. Egungo gizarteko komunikabideen ezaugarriak: multimediarako joera. Teknologia Berrien eragina: bat-bateko komunikazioa.
- Teknikaren garapena XX. mendean eta aurrerapenaren ideia. Teknologia-zientziaren eragina XX. eta XXI. mendeetako gizartean.
-

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. Euskal Herrian, Espainian, Europan eta munduan aro garaikidean izandako aldi eta gertaera garrantzitsuenak eta prozesu historiko aipagarrienak denboran eta espazioan kokatzea; eta Historia ikastean ohikoenak diren konbentzioak eta kontzeptuak erabiltzea.

- Iraupen eta erritmo desberdina izan dituzten bilakaera-prozesuak eta aldaketa historikoak identifikatzen, aztertzen eta alderatzen ditu.
- Euskal Herriko lurraldeetan bizi izandako gorabehera historikoaren ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu, munduko eta Europako historien testuinguruan.
- XVIII. eta XXI. mendeen artean euskal lurraldeetan eragina izan duten zenbait gertaera garrantzitsu friso kronologiko batean adierazten badaki, eta Espainiako eta Europako historien bilakaerarekin alderatzen ditu. Haien artean dauden zenbait lotura ezartzen du, eta bere jorretan jarraitzen duten alderdiak eta aldaketak identifikatzen ditu.
- Gertaera historiko baten edo multzo baten aurrean, batetik bestera izandako aldaketak hautematen ditu, baita bilakaera eta bere horretan jarraitzen duten alderdiak ere.
- Aldiberekotasun eta aldaketa nozioak ikasi ditu, eta badakizki garai batetik beste batera pasatzean izaten diren uneen eta prozesuen ezaugarriak; nozio horiek guztiak XVIII. mendetik gaurdainoko bilakaera historikoa adierazteko aplikatzen ditu.
- XVIII. eta XXI. mendeen arteko epean aztertzen ari garen lurralde-eremuetan izandako gertaera, fenomeno edo prozesuren bat diakronikoki eta sinkronikoki aztertzeko gai da.

**Con formato:** Numeración y viñetas

**Eliminado:** EBALUAZIO-IRIZPIDEAK¶
¶
<#>¶
<#> TU (LOCAL TM) *Created on 11 Sep 07 at 10:41:51 by ALIGN!* ¶
<#>Situar en el tiempo y en el espacio los periodos y hechos trascendentes y procesos históricos más relevantes entre los siglos XVIII a XXI, identificando el tiempo histórico en Euskal Herria, España, Europa y el mundo, aplicando las convenciones y conceptos habituales en el estudio de la Historia.¶
<#>XVIII. eta XXI. mendeen artean izandako aldi eta gertaera garrantzitsuenak eta prozesu historiko aipagarrienak denboran eta espazioan kokatzea; denbora historikoa Euskal Herrian, Espainian, Europan eta munduan identifikatzea, eta Historia ikastean ohikoenak diren konbentzioak eta kontzeptuak erabiltzea.¶
<#>¶
<#>¶
<#>Situar en el tiempo y en el espacio los periodos y hechos trascendentes y procesos históricos más relevantes de la época contemporánea en Euskal Herria, España, Europa y el mundo, aplicando las convenciones y conceptos habituales en el estudio de la Historia.¶
<#>Euskal Herrian, XVIII. eta XXI. mendeen artean izandako aldi eta gertaera garrantzitsuenak eta prozesu historiko aipagarrienak denbo ... [1]

2. Gertaera eta/edo prozesu historiko esanguratsuenen kausak eta ondorioak identifikatzea, beren artean dauden loturak zehaztea eta gertaera sozialak osatzen dituzten kausalitate-aniztasuna ikastea.

Con formato: Numeración y viñetas

- Gertaeren eta/edo prozesu historikoen kausalitate-aniztasuna identifikatzen du.
- Gertaera edo prozesu historiko garrantzitsuren batean eragiten duten faktoreak identifikatzen ditu.
- Gertaera edo prozesu historikoak sorrarazten dituzten kausak sailkatzen eta erlazionatzen ditu.
- Gertaera historiko bat sortzea eragiten duten kausek epe laburrera eta luzera dakartzaten ondorioak zehazten ditu.
- Gertaera historikoak interpretatzen badaki eta haien artean erlazionatzen ditu.
- Gertaera historiko edo gaur egungo gertaera baten kausa-efektua erlazioa identifikatzen du.
- XVIII. eta XXI. mendeen arteko epean aztertzen ari garen lurralde-eremuetan izandako edozein gertaera, fenomeno edo prozesu historiko garrantzitsuren kausak eta ondorioak diakronikoki eta sinkronikoki deskribatzeko gai da.

3.XVIII. mendean Europan gertatutako aldaketetako eta bere horretan jarraitzen duten alderdietako zenbait elementu zerrendatzea, Antzinako Erregimeneko ezaugarriak erreferentzia hartuta; borboitarren erreformak Espainian izan zituen ezaugarriak adieraztea eta haiek Euskal lurraldeetan izan zuten eragina azaltzea.

-Antzinako Erregimenaren garaiko gizartearen ezaugarri nagusiak identifikatzen ditu.
- Euskal Herriko eta Espainiako bilakaera politikoa, soziala eta ekonomikoa Europakoarekin alderatzen du, eta ezaugarri nagusiak taula batean laburbiltzen badaki.
- XVIII. mendearen joanean gertatuko aldaketak ikasi ditu, eta badaki Espainiako despotismo ilustratuaren berezko izaera zentralizatzailea eta erreformista deskribatzen.
- Garai hartako gertaera historikoek egungo euskal errealitatean duten eraginen ondorioak ateratzen ditu.
- Despotismo ilustratuaren eta borboitarren erreformen berezitasunek Euskal Herrian eragindako ondorioak identifikatzen eta ulertzen ditu: aldaketa sozioekonomikoak, gizarte-krisiak, merkataritzaren gorakada, etab.
- Antzinako Erregimenak iraun bitartean aztertzen ari garen lurralde-eremuetan izandako edozein gertaera, fenomeno edo prozesu historiko garrantzitsu diakronikoki eta sinkronikoki deskribatzen du.

4. Industrializazio-prozesuaren, ekonomiaren modernizazio-prozesuaren eta burgesen iraultza liberalen oinarrizko ezaugarriak identifikatzea; haiek eragindako aldaketa ekonomikoak, sozialak eta politikoak balioestea; eta honako lurralde-eremu hauetan prozesu

horiek izan zituzten berezitasunak identifikatzea: Euskal Herrian, Espainian eta Europan.

-Industria-iraultza eragin zuten faktoreak identifikatzen ditu; industria-iraultzak ekoizpenean eragin zituen aldaketak ikasi ditu; eta, Europan barrena aldi berean ezarri ez zenez, erritmo-desberdintasuna hautematen du.

- Euskal Herriko industria-iraultzaren ezaugarriak, erritmoak eta eragin zituen aldaketa sozialak eta gainerakoak aztertu ditu, eta industria-iraultzatik eratorritako aldaketa sozialak identifikatzen ditu.

- XIX. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik euskal ekonomiaren bilakaeraren eta euskal gizartean izandako kulturaniztasunaren sendotzearen artean dauden loturak ezartzen ditu.

- Burgesen iraultza liberalen oinarri politikoak identifikatzen eta deskribatzen ditu, eta iraultzak erreferentziazko lurralde-eremuetan eragin zituen aldaketen kausak aztertzeko gai da.

- Iraultza-prozesu horiek Espainian izan zituen berariazko ezaugarriak identifikatu eta azaltzen ditu, baita haiek Euskal Herrian izan zuten eragin politikoa ere.

- Industria-iraultzarekin zerikusia duen edozein gertaera, fenomeno edo prozesu historiko garrantzitsu diakronikoki eta sinkronikoki deskribatzen du; honako lurralde-eremu hauetan gertatutakoak: Euskal Herrian, Espainian eta Europan.

- Garai hartako zenbait gertaeraren jatorriak, ondorioak eta gaur egun oraindik ere eragiten dituzten ondorioak aztertzen ditu; esaterako, industrializazioarenak, burgesen iraultza liberalenak eta Euskal Herriko sozialismoaren sorrerarenak.

5. XIX. mendearen bigarren erdialdean Europak zergatik zuen halako protagonismoa azaltzea; urte horietan izandako gatazkak eta arazoak identifikatzea, bereziki, kolonialismoaren hedatzearekin eta tirabira sozialekin eta politikoekin zerikusia dutenak.

- Inperialismoaren garaiak iraun bitartean Europak munduan izan zuen protagonismoa azaltzeko gertaera garrantzitsuenak zein diren ikasi du.

- Kolonialismoa hedatzeak nazioarteko harremanetan zein herrialdeetan beretan zein ondorio zituen identifikatzen du.

- XIX. mendearen bigarren erdialdean aztertzen ari garen lurralde-eremuetan izandako edozein gertaera, fenomeno edo prozesu historiko garrantzitsu diakronikoki eta sinkronikoki deskribatzen du.

- XIX. mendearen bigarren erdialdean izandako gertaera politikoak eta ekonomikoak Europako herrialdeetako gaur egungo alderdi asko azaltzeko baliagarriak direla badaki, baita herrialde kolonizatuetako alderdi asko azaltzeko ere; halaber, zenbaitetan, herrialde horietako egungo arazoen iturri direla hautematen du.

6. XIX. mendearen bukaeraz geroztik Euskal Herrian eta Espainian izandako bilakaera politikoaren eta ekonomikoaren garaiak identifikatzea eta haien ezaugarriak zehaztea, testuinguru europarra kontuan hartuta; ekonomia modernizatzea lortu bitartean izandako

aurrerapenak eta atzerakadak identifikatzea eta haien ezaugarriak zehaztea; eta sistema demokratikoaren sendotasuna eta Europako Batasuneko kide izatea balioestea.

- Europako eta munduko Historiaren une giltzarriak eta gertaera garrantzitsuenak identifikatzen ditu, eta epe horretan Euskal Herrian izan zuten eragina ulertzen du.
- XIX. mendearen bukaeraz geroztik gaurdaino euskal eta espainiar gizarteek izan dituzten aldaketa nagusiak deskribatzeko gai da (demografikoak, ekonomikoak, sozialak, politikoak eta ideologikoak), baita elkarri eragindako zenbait ondorio azaltzeko ere.
- XX. mendean eta trantsizio-garaia arteko aldi politikoen kausa eta ezaugarri nagusiak identifikatzen ditu.
- Espainiako aldaketa politikoen eta Euskal Herriko bilakaera historikoaren arteko lotura ezartzen du (aurrerapenak eta atzerakadak askatasunen ibilbidean).
- Euskal nazionalismoaren sorreran eragina izan zuten faktoreak deskribatzen badaki.
- Foruak ezeztatu aurreko eta ondorengo euskal lurraldeetako antolaketa politikoak alderatzen ditu.
- Euskal Herriko eta Espainiako frankismoaren eta trantsizioaren garaietako alderdiak zein diren badaki; horrenbestez, gai da historian gizabanakoen zeregina zein izan den identifikatzeko, badaki memoria historikoa gordetzea garrantzitsua dela.
- Trantsizio politikoaren elementu adierazgarrienak bereizten ditu, 1978ko Konstituzioa artekoak, eta Espainian —Europako Batasunean sartzean— Estatu demokratikoa finkatu artekoak.
- Egungo Euskal Estatutua aztertuta, bertako artikuluetan ikusten du lehengo foruen isla.
- Europaren eraketa-prozesua aztertu eta etapak eta helburuak identifikatzen ditu, besteak beste.
- Ohartzen da eskubide eta betebehar indibidualen eta kolektiboen arteko oreka beharrezkoa dela; eta konturatzen da demokrazia etengabe eraiki behar den prozesua dela, eta desberdintasunari eta bazterkeriari aurre egiteko konpromisoa, nork berea eta kolektiboa, hartzea nahitaezkoa dela.

XX. mendean Euskal Herria, Espainia eta Europako lurralde-eremuetan izandako honako gertaera, fenomeno edo prozesu historiko garrantzitsu diakronikoki eta sinkronikoki deskribatzen ditu: ekonomia modernizatzea lortu bitartean izandako aurrerapenei eta atzerakadei buruzkoak, sistema demokratikoaren sendotasunari buruzkoak eta Europako Batasuneko kide izateari buruzkoak.

7. XX. mendean gertatu diren aldaketa handiak eta munduko gatazkak denboran eta espazioan bereiztea eta kokatzea; ezaguera historikoak gaur egungo nazioarteko zenbait arazo nabarmen ulertzeko erabiltzea.

- XX. mendean nazioartean izandako gertaera nagusiak identifikatzen ditu; esate baterako, iraultza sozialistak, Mundu Gerrak eta koloniek independentzia lortzea.

- Egungo nazioarteko arazo batzuk aipatutako gertaera horiek kontuan hartuta aztertzen ditu, munduaren ikuspegi globala aintzat hartuta eta eurozentrismoa alde batera utzita.
- XX. mendean gertatutako mundu-arazoren batekin zerikusia duten aldaketa-prozesuak irudikatzen eta azaltzen ikasi du; horretarako, besteak beste, diagramak, denbora-ardatzak, kronologia-koadroak, kontzeptu-mapak eta hormako mapak erabili ditu.
- XX. mendearen joanean gertatu eta mundu osoan eragina izan duen aldaketa sozial, ekonomiko edo politiko bat diakronikoki eta sinkronikoki deskribatzeko gai da.
- Gizarte garaikideei buruzko zenbait iturri historiko bilatu eta alderatzen ditu, eta hutsuneak, akatsak eta beren artean dauden kontraesanak adierazi ditu.
- Bigarren mundu-gerraren amaieran sortu zen bloke-sistemaren ondorioak identifikatzen ditu, baita bloke horiek desagertzearen ondorioz sortutako mundu ordena berriaren ondorioak eta sozialismoaren inguruko herrialdeetan gertatutako aldaketen ondorioak ere.
- Nazioarteko erakundeen zeregin historikoa balioesten du, NBErena bereziki, baita egungo zeregina ere.
- Nazioartean eragina duen krisi edo gatazka baten kausak eta ondorioak deskribatzen badaki, eta horiek gaur egun izan ditzaketen ondorioei erreparatzen die.
- Egungo gatazken alderdi guztiak aztertzen ditu, eta bere burua alderdi guztien ikuspuntuan jartzeko ahalegina egiten du.

8. Gaur egun munduan gertatzen den tirabira politiko edo sozialen bati buruzko lanak planifikatzea eta horiek egitea, bakarka eta taldean, gertaera horien aurrerakin historikoak ikertzen direla, eta kausak eta nola amai daitezkeen aztertzen dela; horretarako, informazio-iturri egokiak erabiliko dira, gertaera berari buruz interpretazio desberdinak edo osagarriak ematen dituztenak barne.

- Inguru hurbilean edo urrutiago izandako gertaera baten bilakaera deskribatzeko gai da; ahal bada, gaur egun oraindik ere garrantzi berezia duen gertaera bat aztertuko da.
- Pertsonek gauzatutako zenbait ekintzaren kausak, testuinguru orokorra eta arrazoiak zein diren jakiteko interesa du, eta aldaketa historikoak azaltzeko erabiltzen du ikasitakoa.
- Bere munduko egoera bat aukeratu eta hura aztertu eta ikertzen du; egoera horren aurrekariak eta hura eragin duten kausak bilatzen ditu, eta izan ditzakeen ondorioak logikaz azaltzeko aplikatzen du ikasitakoa.
- Lana planifikatzeko eta bere gisara zenbait informazio-iturritara jotzeko ekimena duela erakusten du.
- Lortutako informazioa aztertzen eta antolatzen du eta ondorioak argi eta garbi azaltzen ditu; bestalde, horretarako, informazio- eta komunikabide-teknologiek ematen dituzten aukerak erabiltzen ditu.
- Zenbait iturri historikotara jotzen du informazioa lortzeko, bai idatziak, bai ahozkoak eta/edo materialak, komunikabideak (prentsa, telebista, zinea, etab.) eta Informazioaren eta Komunikazioaren

Teknologiak (IKT) barne; halaber, gertaera historiko edo sozial berari buruz aurkitutako hainbat interpretazio bereizten ditu.

- Eduki historikoko informazio-iturri historikoak eta egungoak zorrotz eta objektiboki interpretatzen ditu; esate baterako, komunikabideetako agiriak, lehen mailako iturriak, posterrak eta arte-lanak.
- Gertaera jakin bat abiapuntu hartuta, badaki zenbait iturri eta egileren eraginak eta ikuspegiak interpretatzen.
- Argi eta txukun aurkezten ditu azken ondorioak, eta, horretarako, arloaren berariazko hiztegia erabiltzen du, baita linguistikoak ez diren baliabideak ere —mapak eta grafikoak, esaterako—, hainbat euskarriren bidez (ahozkoa, idatzia, digitala...).
- Izaera historikoko testu erraz baten iruzkina egiten eta testuaren ideia nagusiak ateratzen badaki, baita egileak testua idaztean zuen helburua zein zen ere.
- Ondo informatuta egoteko gogoa eta jakin-mina du; komunikabideetako eta sareko informazioaren eta mezuen aurrean jarrera kritikoa du.

9. Egungo arte-adierazpen garrantzitsuenak identifikatzea eta balioestea, inguru hurbilean dituenak zein urrutiagokoak; gizadiaren arte-garapen komunari kultura guztiek egin dioten ekarpena aztertzea, baita zaindu beharreko ondareari egin diotena ere.

- Arte-estilo nagusiei dagozkien arte-lanak identifikatzen ditu.
- Arte-lanen estetika-balioak aintzat hartzen ditu.
- Arte-lanak eta objektu artistikoak interpretatzen ditu, eta haien garaiko testuinguru orokorra eta egilearen nondik norako bereziak kontuan hartzen ditu.
- Arte-lanen artean dauden berdintasunak eta desberdintasunak aintzat hartzen ditu, eta haien arteko eraginez ohartzen da.
- Kultura eta garai historiko nagusietako arte-lan aipagarrienak alderatu eta kronologikoki kokatzen ditu.
- Gizarteen kultura- eta arte-adierazpenak balioesten eta errespetatzen ditu, eta norberaren prestakuntzarako garrantzi handia dutela badaki.
- Haren inguruan oraindik irauten duten aztarna jakinen iraganari eta jatorriari buruzko galderak egiten ditu.
- Ondarea babesteko eta hobeto zaintzeko ekintzak identifikatzen ditu.
- Inguru hurbilean eta urrutiago dauden ondareen elementuak balioesten eta errespetatzen ditu.

10- Eztabaidetan parte hartzea, gaur egungo alderdiei eragiten dieten aldaketei eta jarraitutasunei buruzko iritzi arrazoituak azaltzea, eta, hori guztia, Gizarte Zientzietan oinarritutako arrazoiak emanda, gainerakoen iritziak errespetatuta eta ondorio komunak lortzen eta jakinarazten saiatuta.

- Zenbait gertaera historikori buruzko hipotesiak proposatzen ditu.

- Gertaera historiko jakinen aldeko eta aurkako jarrerak arrazoitzen ditu.
- Ekintza politikoei buruzko iritziak ematen ditu eta horiek arrazoitu egiten ditu.
- Aurka duen aldeak arrazoi pixka bat izan dezakeela hartzen du abiapuntutzat.
- Elkarrizketa eta prozedura bakezaleen alde agertzen da, pertsonen, taldeen eta herrialdeen arteko gatazkei irtenbidea emateko.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

TU (LOCAL TM) *Created on 11 Sep 07 at 10:41:51 by ALIGN!*

Situar en el tiempo y en el espacio los periodos y hechos trascendentes y procesos históricos más relevantes entre los siglos XVIII a XXI, identificando el tiempo histórico en Euskal Herria, España, Europa y el mundo, aplicando las convenciones y conceptos habituales en el estudio de la Historia.

XVIII. eta XXI. mendeen artean izandako aldi eta gertaera garrantzitsuenak eta prozesu historiko aipagarrienak denboran eta espazioan kokatzea; denbora historikoa Euskal Herrian, Espainian, Europan eta munduan identifikatzea, eta Historia ikastean ohikoenak diren konbentzioak eta kontzeptuak erabiltzea.

»

Situar en el tiempo y en el espacio los periodos y hechos trascendentes y procesos históricos más relevantes de la época contemporánea en Euskal Herria, España, Europa y el mundo, aplicando las convenciones y conceptos habituales en el estudio de la Historia.

Euskal Herrian, XVIII. eta XXI. mendeen artean izandako aldi eta gertaera garrantzitsuenak eta prozesu historiko aipagarrienak denboran eta espazioan kokatzea; denbora historikoa Euskal Herrian, Espainian, Europan eta munduan identifikatzea, eta Historia ikastean ohikoenak diren konbentzioak eta kontzeptuak erabiltzea.

Identifica, analiza y compara procesos de evolución y cambio histórico de distinta duración y ritmo.